

ESKOLARTEKO IPUIN LEHIAKETA

XVIII. edizioa

2 0 0 6

*Mig
Rafael
Koleta*

Fotokonposaketa:
A.G. CELORRIO, SDAD. COOP.

Inprimatzailea:
A.G. CELORRIO, SDAD. COOP.

ISBN: 84-88714-43-2

Lege Gordailua: BI-1126-07

Liburu honek Bizkaiko Foru Aldundiaren laguntza jaso du.



Honako hau duzu, irakurle, Bilboko Udalak antolatzen duen Mikoleta Ipuin Lehiaketari dagokion argitalpena, hemezortzigarrena dagoeneko.

Sari banaketaren argazkian ikusi bezala, gaur eguneko neska-mutilak idatzitako eta gaurkotasun osoz betetako ipuinak izango dituzu gozagarri. Izan ere, inmigrazioa, emakumeen kontrako biolentzia, adopzioa, bazterkeria, gaixotasuna eta heriotza, maitasuna eta abar gorpuztu dira gaztetxo hauen lumari esker. Horrez gain, argitalpenari arintasuna eta freskura ematen dioten, sagu, txakur, untxi, dortoka, zaldi, tximeleta, tigre eta beste hainbat animalia izango dituzu lagun orriotan. Gure uriak eta Bilboko baldosak ere bere lekutxoak izango dute. Hori gutxi izango balitz, gure idazle gazte hauek sortutako mundu horiek guztiak irudi bizi eta koloretsuen bidez irudikatu ahal izango duzu.

Hori horrela, iazko lehiaketan parte hartu zenuten guztioi eta argitalpen honetan zaudetenoi eskerrik asko, eta zuri, irakurle, on egin.

Iñaki Azkuna
Bilboko Alkatea

Sariak

Bilboko Udaletxean, bi mila eta seiko maiatzaren hamazazpian arratsaldeko bostetan batuta, hauxe erabaki du Rafael Mikoleta XVIII. Ipuin Lehiaketaren epaimahaiak, aurkeztutako 673 ipuinak aztertu ondoren:

A KATEGORIA (Lehen Hezkuntzako 3. eta 4. mailak):

1. SAGUA, TXAKURRA ETA KATUA,
Amaia García Huidobro,
Berrio-Otxoa L.H.I. 3. maila.
2. UNTXIA ETA DORDOKA,
Kattalin Garagorri,
Kirikino Ikastola, 3. maila.
3. BILBOKO BALDOSA BATEN ISTORIA,
Nerea Mestraitua Larraondo,
Kirikiño Ikastola 4. maila.

B KATEGORIA (Lehen Hezkuntzako 5. eta 6. mailak):

1. DENBORAREN ERLOJUA,
Iñigo Fernández Barbier,
La Salle Ikastetxea, 6. maila.
2. KOLORERIK GABEKO TXIMELETA,
Amaia García,
Deustuko ikastola 6. maila.
3. GRAFITIAK,
Mikel Erkiaga Herrán,
F. Serrano Ikastetxea, 6. maila

C KATEGORIA (DBHko 1. eta 2. mailak):

1. BI EMAKUME,
Irati Malatsetxebarria Elizegi,
Gabriel Aresti B.H.I., 2. maila.
2. TIGREEN BIDAIA LUZEA,
Iraide Arruti Salguero,
Gabriel Aresti B.H.I., 1. maila.
3. ZENBATERAINO BORROKATU BEHAR IZAN DUT,
Amaia Aldama,
Miguel de Unamuno B.H.I. 2. maila.

D KATEGORIA (DBHko 3. eta 4. mailak):

1. GAIXORIK AL NAGO?,
Lys Madrazo Mediavilla,
Ignacio Ellacuria Ikastetxea, 4. maila.
2. ETORKIZUN BATEN BILA,
José Javier Val Mejuto,
Ignacio Ellacuria Ikastetxea, 3. maila.
3. BILATZAILEA,
Pablo Hernández Becerro,
Berrio-Otxoa, 3. maila.

ARGITARAGARRIAK:

A Kategoria:

- KATU LAPURRA ETA KASKABILOA, Aitor Quintela Lopez, Kirikiño ikastola, 4. maila.
- UME HAGIN HORIA, Andoni Barinaga-Rementeria Arano, Kirikiño ikastola 4. maila.
- ASKATASUNA GOGOAN, Jone Mimentza Zubizarreta, Kirikiño ikastola 4. maila.
- BIZKAIA HERRIA, Irati Bergaretxe, Kirikiño ikastola 3.maila.
- ZAZPI KOLORETAKO ZALDITXOA, Alba Garay Gutiérrez, Kirikiño ikastola, 4. maila.
- BENETAKO GERTAKARIAK, Iker Colino Santurde, Kirikiño ikastola, 4. maila.

B Kategoria:

- ENTZIKLOPEDIA, Ander Portillo Bazaco, Felix Serrano ikastetxea, 6. maila.
- PEIO ETA ARINEN ABENTURA, Jon Fernández Iturregi, Kirikiño ikastola 5. maila.

C Kategoria:

- USTEKABEKO GUTUNA, Uxue Zugaza Goienetxea, Artxandape ikastola, 1. maila.
- UME BATEN ISTORIA, Gorka López Arantzamendi, Gabriel Aresti B.H.I., 1. maila.
- BESTE BAT FAMILIAN, Olatz Asua Moragues, Miguel de Unamuno B.H.I., 2. maila.

D Kategoria:

- ELBARRITASUN ZENTRALA, Patricia García Sesma, Ignacio Ellacuria B.H.I., 3. maila.
- BIZITZA HOBEA, Iñaki Etxarri Ocio, Solokoetxe B.H.I., 3. maila.
- BILBOKO BALDOSAREN KONDAIRA, Zuriñe López Vila, Ignacio Ellacuria B.H.I., 3. maila.

Eta batzarra bukatutzat ematen da, Bilbon bi mila eta seiko maiatzaren hamazazpiko arratsaldeko seiretan.

Ana de Castro Rubalkaba, epaimahaiburua

Lutxo Egia, epaimahaikidea

Xabier Gereño, epaimahaikidea

Jose Maria Larrea, epaimahaikidea

Jesus Etxezarraga, epaimahaikidea

Luis Gutierrez, epaimahaikidea

Pedro Alberdi, epaimahaikidea

Juan Ramon Madariaga, epaimahaikidea


Jose Joakin Gallastegi, idazkaria

LEHEN
HEZKUNTZA
(3-4. mailak)



Sagua, katua eta txakurra

Amaia García Huidobro
Berrio-Otxoa L.H.I., 3. maila



Bazen behin sagu bat, oso bihurria zena. Egunero gosaldutik ostean, hortzak garbitzen zituen, arropa janzen zuen eta kalera irteten zen gazta bila.

Behin, txakur bat ikusi zuen hezur bat hartzen eta saguak bere poltsatxoan beste hezur bat sartu zuen. Geroxeago, gazta bila aritu zen. Baina ez zuen gaztarik aurkitu. Orduan, sardina eta txori bat jaten ari zen katu bat ikusi zuen. Saguak txori bat eta sardina bat sartu zituen bere poltsatxoan.

Etxera abiatutakoan gure sagutxoak gose zen eta esan zuen:

-Gose naiz. Gazta nahi dut.

Gero pentsatu zuen:

-Ez daukat gaztarik.

Baina ahots bat entzun zuen:

-Gose naiz. Saguak nahi ditut.

Katua zen. Dena isil-isilik geratu zen, beste ahots batek haxe esan zuen arte:

-Norbaiten atzetik ibili nahi dut. Adibidez, katu baten atzetik.

Orduan haxe entzun zen:

-Aaaa! (saguarena). Marramia! (Katuarena). Guau! guau! guau!
(txakurrarena).



Baina bat-batean, sagua gelditu, poltsatxotik sardina eta txoritxo atera eta haxe eran zion katuari:

-Begira, sardinak eta txoriak jaten ditut. Horrek esan nahi du katu txiki eta polit bat naizela.

Katuak sinistu egin zion eta haxe galdetu zion:

-Ba al daukazu hezurrik?

Saguak erantzun zion:

-Bai, tori.

Katuak esan zion txakurrari:

-Zergatik jarraitzen nauzu? Hezurak jaten ditut. Orduan txakurra naiz.

Txakurrak sinistu egin zion.

Orduan dena lasai gelditu zen.



Baina, katuak pentsatu zuen:

-Katua izateko, oso belarri handiak ditu. Eta bere atzetik jarraitu zuen.

Baina sagua hantxe bertan aurkitu zuen gazta zati bat jaten hasi zen. Katua hori ikustean gazta jaten hasi zen.

Txakurrak pentsatu zuen:

-Saguaren atzetik ibiltzen bada, katua izango da.

Baina katua eta sagua gazta jaten ikustean, bera ere gazta jaten hasi zen. Orduan, hirurak hitz egiten hasi ziren eta lagunak egin ziren.



Untxia eta dordoka

Kattalin Garagorri Omar
Kirikiño ikastola, 3. maila



Baziran behin dortoka bat eta untxi bat. Untxia beti pasatzen zan dortokaren aurretik eta begira gelditzen jakon.

Dortokak esaten eban:

-Zer? Zer gertatzen da?

Eta untxiak erantzuten eutsan:

-Zure eskola gustatzen jatala.

Eta dordokak esaten eutsan behin eta berriz:

-Ba, erosi; erosi bat!

Behin untxiak esan eban:

-Badakit. Lasterketa bat egingo dogu.

Eta dortokak baietz esan eban.

Heldu zen eguna eta badakizu, ezta?

Untxiak irabazi eban eta eskola untxiarentzat izan zan.

Bilboko baldosa baten istoioa

Nerea Mestraitua Larraondo
Kirikiño ikastola, 4. maila

Orain dela urte batzuk, Leire izeneko hamar urteko neskatila bat bizi zan Bilbon.

Behin, bere bizitza osoan inoiz ahaztuko ez dauan istorio harrigarria gertatu jakon. Arratsalde batean, ikastolatik bere etxera zihoala, herri-lanetatik igaro zan. Udaleko langileak baldosa zaharrak barrien truke aldatzen ari ziran. Bat-batean, Leirek hots arraro bat entzun eban: “Ahhh...”.

Neskatila harrituta geratu zan eta, leku guztietara begiratu eban arren, ez eban inor ikusi. Horrexegatik, erratu egin zala pentsatu eban. Baina barriro norbaitek hitz egin eutson. “Aizu! Kendu zure oinak nire sudur gainetik, mesedez!”.

Leirek une haretan behera begiratu eban. Ezin eban sinistu. Baldosa bat berba egiten ari jakon. Laster bere gainetik kendu egin zan eta baldosak isilka esan eutson: “Ztziss... mesedez. Orain ez gaitu inork ikusten. Hartu eta eraman nazazu arineketan zeurekin”.

Nahiz eta Leire zur eta lur egon, esana bete eta ikastolako motxilan sartu eban. Handik lasterka bere etxera joan zan. Etxera heldu bezain laster, bere

logelara sartu zan baldosagaz. Baldosak esan eutson: “Eskerrik asko. Zuk kaletik hartu ez baninduzu, zaramara botako nindukien”.

Leirek baldosari galdetu eutson: “Nola demontre hitz egiten dozu zuk? Inori kontatuz gero, zoratuta nagoela pentsatuko dau”.

Eta baldosak erantzun eutson: “Oso errez. Bilboko lehenengo biztanlea sorgin bat izan zan. Sorginkeria baten bidez ehun urterik behin bizi bako gauza batek bizia hartuko eban ilunsentititik egunsentira arte. Aurten niri tokatu jatanez, hitz egin ahal dot. Orain dela ehun urte farola bati tokatu jakon eta gau osoa kantatzen aritu izan zan. Zelako nahastea antolatu zan! Nik, ordea, edozein pertsonarekin hitz egitea nahiago dot”.

Leirek ezin eban sinetsi, baina baldosari buruzko gauza gehiago jakiteko gogo handia eukan. Horrexegatik esan eutson: “Tira, oraindik ez deutsut nire izena esan. Ni Leire naz, eta zu?”.

Baldosak: “Nik ez daukat izenik. Bilboko baldosa bat baino ez naz. Badakizu Bilboko baldosak bereziak garela? Ez dago gu bezalakorik mundu osoan; Bilboko Baldosak deitzen deuskue. Gu harro-harro gagoz bilbotarrak izanda”.

Leirek esan eutson: “Ez nekien. Eta zu pozik zagoz zure lanarekin?”.

Baldosak erantzun eutson: “Noski baietz, autoak igarotzen diranean eta txakurrek neure gainean kaka eta txiza egiten deustenean izan ezik”.

Leirek esan eutson: “Eta zenbat urte egon zara Bilboko kaleetan?”.

Baldosak erantzun eutson: “Ez dut gogoratzen, baina urte asko”.

Eta Leirek galdetu eutson: “Eta zer da gehien gustatzen jatzuna Bilbori buruz?”.

Eta Baldosak erantzun eutson: “Dударik gabe itsasontziak. Nerbioi ibaia oso garrantzitsua izan zan Bilborako itsasontziak bertatik pasa ahal zirelako. Oraindik gogoratzen dot lehenengo itsasontzia ibaitik igaro zen eguna! Eta gainera Bilbon zubiak altxatu izan dira itsasontzi handiak pasatzeko”.

Leirek esan eutson: “Ba, nik ez dodaz ikusi!”.

Baldosak esan eutson: “Zu oso gaztea zarelako”.

Leirek orduan: “Nola jakin ahal dozu hainbeste istorio Bilboz?”.

Eta Baldosa Bilboko historia kontatzen hasi zan. “Nik neure uriaz istorio asko dakidaz. Eta ziur nago zeure buruari galdetzen deutzazula nola izan ahal dan. Beno, nire lagunak eta nik geure hizkuntza isilean hitz egiten dogulako lur azpitik eta mezuak bidaltzen deutzaguzalako alkarri”.

Eta Leirek esan eutson: “Eta kontatu ahal deustazuz istorio horreek?”.

Bai, horixe. Bilbo uria izan baino lehen jendea bizi zan hemen. Diego Lopez de Harok 1300. urteko ekainaren 15ean emon eutson uri-gutuna Bilboko uriari. Erdi Aroan, Bilbo merkataritzako kokagune garrantzitsua izan zan. Horretarako eragin handia izan eban kostaldetik igarotzen zan Donejakue Bideak. Badakizu zer dan?”.


Leirek erantzun eutson: “Bai, noski! amak esan eustan. Gainera, auzoan Donejakueri buruzko kartel bat ikusi dot”.

Baldosak jarraitu eban: “Bilbo, Europatik Gaztelara zihoan merkataritzako leku estrategiko bat izan zan. Eta pixkanaka-pixkanaka, Bilbo hasi egin zan eta merkataritza, burdingintza eta lehenengo industria sortu zan. Horrela, zazpi kaleak

sortu ziren. Lehenengo, hiru kale egin ebezan eta gero beste lau batu jaken. Eraikin politak egin ebezan eta uria garatu egin zan. Esan behar deutsut betidanik mundu guztiak ezagutzen gaitula, beste uri batzukaz harremana daukagulako. Bilbo oso kosmopolita da.

Azken urteotan asko aldatu da. Gero eta politagoa bihurtzen ari da. Niretzat bilbotarra nazala esatea ohore bat da”.

Leirek: “Oso gustatzen jat zuri entzutea. Jarraitu mesedez!”.



Baldosak gau osoa emon eban istorioak kontatzen. Biharamunean, egunsentia izan baino lehen, baldosa apurka-apurka bizia galtzen hasi zan. Baina hori gertatu aurretik Leirek bere hitza eman eutson: inoiz ez ebala ahaztuko eta gainera bere seme-alabei istorio hori kontatuko eutsiela agindu eutson. Eta Baldosak Leireri eskatu eutson emakume ospetsua izatean ez ahazteko edonori esatea bilbotarra dala.

Azkenik, egunsentia heldu zan eta Bilboko baldosaren bizia joan zan. Leireri malko batzuk irten jakozan eta beragaz gorde eban betiko.

Eta halan bazan, edo ez bazan, sar daitela kalabazan eta atara dadila nire plazan.

Katu lapurra eta kaskabiloa

Aitor Quintela Lopez
Kirikiño ikastola, 4. maila


Behin, katu txiki bat bizi zen itsasoa zeukan herri txiki baten. Katu txiki horri sardinak eta antxoak gustatzen zitzaizkion.

Arrantzaleak etortzen zirenean, katu txikia itsasontzira sartzen zen eta arrainak jaten zituen. Beti berdin eta arrantzaleak oso haserre zeuden.

Egun baten, arrantzale batek buztan bat ikusi zuen. Berak txarto ikusi zuela eta arrain batena zela pentsatu zuen. Baina hurrengo egunean, berriro ikusi zuen eta begiratzera joan zen. Hantxe ikusi zuen katua arrainak jaten.

Epai bat egin zioten katuari zigorra ipintzeko baina herriko guztiek ezagutzen zuten katu hori eta ez zioten zigorra ipini. Baina kaskabiloa ipini zioten eta katua itsasontzira hurbiltzen zenean kliklikliklikli... entzuten zen. Horrela, bazekiten katua hurbiltzen zela.

Horregatik asmatu zen katu edo beste animalia batzuei kaskabiloa ipintzea.



Ume hagin horia

Andoni Barinaga-Rementeria Arano
Kirikiño ikastola, 4. maila

Bazan behin Imanol izena eukan mutil bat. Handia besteko bihurria zan. Beti egoten zan prest bihurrikeriak egiteko.

Gure lagunak baeukan arazo bat, arazo handi-handia: haginak hori baino horiago jartzen jakozan. Ez ekian zer pentsatu. Nondik etorri ete lekion gaisotasuna edo dana dalako hori?

Denbora aurrera joan ahala, bere portaerak haginaren koloreagaz zerikusia eukala konturatzen hasi zan. Zenbat eta txarrago portatu, gero eta horiago jartzen jakozan haginak.

Egun baten, haginak ia ustelduta eukazala konturatzean, amari zeozer esan behar eutsala erabagi eban. Amak ez eutsan sinistu ere egin eta zorakeriarik ez esateko eskatu eutsan, baina haginlariarengana joatea pentsatu eban. Holan egin eben.

Amak Imanolek ez ebazala haginak garbitzen esan eutsan haginlariari. Semeak, barrez, bere bertsioa kontatu eutsan. Haginlariak barre handiak egin ebazan, holangorik sekula entzun barik egoala eta.

Pinotxoren ipuina txarto ikasita eukala; Pinotxori kolorea aldatu barik, sudurra handitzen jakolako esan eutsan eta haginak ondo garbitzeko agindu eutsan; horretarako hagin-pasta berezia emon ere.

Egunek aurrera egin eta egoera ez joian onera, txarrera baino. Haginak gero eta horiago, gero eta ustelago, ikusten ziren. Danak egozan oso arduratuta, Imanol, bere ama eta haginlaria ere bai.

Handik aurrera haginak amaren aurrean garbituko ebazan. Baina ondo garbitu arren, egoera ez zan aldatzen. Ez ekien zein ondorio atara.

Azkenean, gaixotasun arraro bat eukala onartu eben. Amerikan egoan beste haginlari ospetsu batengana joan behar ebela agindu eutsien. Asko pentsatu barik, hegazkina hartuta, hara joan ziran.

Amerikako hiri handi batera heldu eta etxe egokirik ez eben aurkitu. Azkenean berandu egin eta atari baten igaro behar izan eben gaua. Biharamunean sorpresa ikaragarria hartu eben: Imanolen haginak karea baino zuriago egozan. Harek ez eukan azalpenik. Haginlariak ingelesez berba eginda oso gatx arraroa zala esan eutsien, baina orain zuri baeukazan kasurik ez egiteko. Ordaindu eta beste barik Euskal Herrira itzuli ziran.

Handik gitxira medikuaren errebisioa egin behar eta honek eransteke agindu eutsanean gorputz osoa hori eukala ikusi eban. Umeak garrasika esan eban:

- E S T R A L U R T A R R A
N A A A A A A A A A Z ! ! ! ! !

Txinako osagile on batengana joan ziran. Honek bai erremedioa! Susto ikaragarria emon eta zuri-zuri jarri zan mutila.

Gehiagotan ez eban zurtasunik galdu. Arazoa konponduta egoan betiko.



Askatasuna gogoan

Jone Mimentza Zubizarreta
Kirikiño ikastola, 4. maila

Behin batean, baegoan zaldi bat oso ederra eta Xuritxo izenekoa, zuri-zuria zalako.

Egun baten, zaldi txiki polit bat aurkitu eban zaurituta. Hain bakarrik eta zaurituta egoala ikusita, izugarrizko pena emon eta berarekin eramatea pentsatu eban. Horrela, Xuritxo bere ama izango zen. Zalditxoak oraindik hankan min eukan baina ahal ebana egin eban bere ama barriari jarraitzeko. Gero erreka baten ura edaten gelditu ziran. Xuritxok galdetu eutsan:

-Zelan dozu izena ?

-Izar dot izena.-erantzun eutsan-. Ama abeltzainek hil dabe eta nik alde egin dot ahal izan dodan bitartean, eta horregaitik nago zaurituta. Aldapa batetik jausi eta harri baten kontra jo dot.

Gaua heldu zan eta Xuritxok eta Izarrek zuhaitz handi eta zahar baten azpian lo egin eben. Zuhaitzak gaueko haizetik eta euritik babestu ebazan zaldiak.

Hurrengo goizean, Xuritxok ez eban Izar ikusten eta bilatzen hasi zanean, zuhaitzaren beste aldean egoala ikusi eban. Orduan Xuritxok umetxo bat aurkitu eban uretan saski batean eta Izar beraren bila sartu zan uretara. Izarrek umea hartu

eta zuhaitzaren azpian itzi eban eta esan eutsan Xurixori:

-Ze animalia mota da hau?

-Ez da animalia. -esan eutsan Xurixok- gizakia baizik.

-Eta zer da gizakia?

-Gizakia... gizakiak Jesusek sortu ebazan pertsonak dira.

-Aaaaa!! -esan eban Izarrek- Eta zertarako?

-Mundu alai bat eukiteko.

Umea negarrez egoan, egarri eta gose zalako. Xurixok sagar batzuk hartu ebazan eta Izarrek umearen saskian ura ekarri eban.

Umea jan eta edan egoten zan denpora guztian eta jadanik ohitu zan zaldien aurpegietara. Urteak joan ziran eta umea hasten zihoan. Umeak jadanik 10 urte eukazan eta zaldiek izena jarri eutsien, Beñat.



Zaldiekin ibiltzen zan hara eta hona. Zaldiak oso gustura ibiltzen ziren eta oso gogoko eben umea zirikatzea, lurrera botatzea eta aurpegia miazkatzea. Baina egun baten, Xurixok jausi eta izugarrizko zauria egin eban eta Beñatek eta Izarrek zuhaitz zaharraren azpira eroan eben. Egun batzuk igarota, Beñatek zauria sendatu eutsan eta oso ona zala esan eutsan.

Honela, urteak joan eta urteak etorri, Beñatek 18 urte eukazan eta zuhaitz zaharretik joan nahi eban. Xurixok eta Izarrek ezetz esan eutsien, baina berak kasurik ez. Beñat joan egin zan eta Izar eta Xuritxo bidaia guztian Beñaten atzetik joan ziren. Ura edateko gelditzen zanean, zaldiek be edaten eben eta jateko gelditzen zanean, zaldiak be bai.

Hilabeteak igaro ziran eta barazki gozoak zituen ortu bat ikusi zuen. Beñat ortura joan zan baina zaintzen eban agureak eskopeta bat eukan eskuan. Xurixok salto izugarria egin eban eta:

-Xuritxo ez, kendu erditik hil egingo zaitu!!! -esan eban Beñatek.

Eta horrela, agureak botatako tiroek Xuritxo zeharkatu eben. Izarrek bere amari deitu eutsan eta hauxe esan eutsan Xurixok Izarri:

Izar, joan Beñatekin zuhaitz zaharrera. Ni orain joango naiz!!

Agureari izugarrizko pena emon eutsan zaldi eder ha hiltzea eta sendatu eta berarentzat hartu eban bere gainean ibiltzeko.

Urteak joan ziren eta Xurixok askatasuna gogoan eukan eta ihes egitea erabaki eban. Zuhaitz zaharrera joan zanean, ez ebazan Beñat eta Izar ikusi. Deitzen ibili zan:

-Izar etorri. Beñat non zaude!!!

Baina Xurixok ez zituan Izar eta Beñat aurkitu.

Bidaia egingo dot. Lurralde hau goitik behera arakatuko dot.

Bitartean Izarrek ez eban ahaztu bere ama eta esaten eban gauetan:

-Ama, non zaude? Entzuten deustazu, ama?

-Bai, laztana. Zuk eta nik telepatia daukagu. Jaunak emon euskun berezitasun hori.

-Non zaude ama, zure bila ibili gara!!!

-Ni ere bai, laztana. Nik lurralde guztia arakatu dot baina nire hankek ezin dabe gehiago. Eta zelan dago Beñat?

-Ondo, baina orain lo dago. Behin eta berriz dabil esaten zu bilatu behar zaitugula, baina ez du indarrik ezer egiteko eta ez du jaten. Zu bizirik aurkitzen ez bazaitu, ez daukala jango eta ez dala inoiz barkatuko esaten dau.

-Baina hori nire erabakia izan zan eta ez berea. Nik semea balitz maite dot eta ez naz nekatuko zuok aurkitu arte.

Behin Izar eta Beñat zuhaitz zaharrera joan ziran eta han non aurkitu eben Xuritxo negarrez, zuhaitz zaharraren azpian. Izar eta Beñat berarengana joan ziran eta hirurek oso pozik jarri ziren.

Beñatek erreka beste aldean neska eder bat aurkitu eban eta han itxaroteko esan eutsan. Beñatek ez eban jakin bere izena maiteminduta gelditu ziren arte. Bere izena Izarraitz zan eta Xuritxo eta Izar beraiekin joan ziren bizitzen.

Hortik aurrera ez ziran ezertarako be banandu.

Bizkaia Herria

Irati Bergaretxe
Kirikiño ikastola, 3. maila

Bazen behin, Bizkaia deitzen zen herri bat. Ez zen handia, ez txikia, normala baino. Euskera mota asko egiten ziren eta ikastetxean ziren umeek oso ondo pasatzen zuten. Ikastolatik irteten zirenean, parkera joaten ziren eta oso ondo ibiltzen ziren.

Egun baten, parkea bota zuten eta triste gelditu ziren guztiak etxean.

Baina egun batzuk pasa eta gero, uri bat egin zuten eta izen hauek ipini zizkioten: Bizkaia, Lapurdi, Gipuzkoa, Nafarroa, Araba... eta Bilbo amaitu zutenean jendea oso pozik ipini zen.

Behin, Udaletxeak txango bat egin zuen. Mendira ia jende guztia joan zen. Eta alkateak esan zuen.

-Mendi honetan koba batzuk dagoz eta ikustera joango gara.

Jende guztia kobetara joan zen eta oso ondo pasatu zuten.


Hurrengo egunean, ikastolara joan behar ziren. Ikasleak oso pozik egozan txango bat egingo zutelako. Txangora heldu eta esan zuen andereñoak.

-Bueno, heldu gara. Ondo porta, bai?

-Bai andereño.

Eta jendea oso pozik bizi izan zen Bilbon.

Eta egun baten kontrola egon zen.
Eta esan zuten umeei.
-Kontrola? Zelako kaka! ezta?
Egia bada, sinistu eta ez bada, ez sinestu.



Zazpi koloretako zalditxoa

Alba Garay Gutiérrez
Kirikiño ikastola, 4. maila

Hiru seme zituen langile behartsu batek. Lauren artean kuartel baten baino gose handiagoa batzen zuten. Behin, aita aberats baten etxera joan behar zuela pentsatu zuen eta lur zatitxo bat lantzeko baimena eskatu zion. Aberatsak baietz esan zion, baina batzen zuenaren erdia eman beharko ziola esan zion.

Langilea eta seme txikia lanean hasi ziren su eta gar. Beste biek, oster, zeruari begira igarotzen zuten denbora guztia tutik egin gabe.

Garia erne zenean, aita hiru semeei eskatu zien gauez txandaka zaintzeko animaliaren batek ez jateko. Lehenengo gauean, zaharrenak su ondoan etzan eta loak hartu zuen. Biharamun goizean soro guztia zapalduta eta janda agertu zen. Aita piztu egin zen:

-Kankailu hori! Neuk astinduko zaitut!

Baina anaia txikia bitartean jarri zen eta hori ez egiteko esan zion.

Beste horrenbeste gertatu zen beste anaiarekin: lo gogorrak hartu zuen su ondoan.

-Hil egingo nauzue bion artean! esan zuen aita gari arloa alferrik galduta.

Gerrikoa kentzekotan zegoen, baina berriz ere bitarteko egin zuen txikienak.

-Geldi, aita! Alferrik duzu. Bihar belarrietatik oratuta ekarriko dizut gari guztia hondatzen digun animalia hori.

Gau hartan Kepa, hori zen txikienaren izena, arbolaren atzean ezkutatu zen. Haize kirri leuna sortu zen eta txilin hotsarekin bat kanta hau:

Laranja koloreko gorputza,
urrezkoak grinak.

Urdinak dira nire apatzak,
berdeak nire begiak.

Morea da buztana
eta anila. Su gorrizkoak
ditut belarriak.

Alde guztietara begira jarri zen Kepa eta hara non hurbiltzen zitzaion zalditxo bat. Hemen jan, han salto; hemen salto, han jan. Zalditxoa lasaitasun osoz zebilen gari artean. Zalditxoa su ondora hurbildu zenean, hobeto ikusi zuen. Zalditxoak ortzadarreko zazpi koloreak zituen benetan, kanta zioenez.

Zalditxoa hizketan hasi zitzaion:

-Aurkitzeko gauza izan zarenez, zeure morroia izango naiz hemendik aurrera. Niri deitzeko hauxe esan behar duzu: Zalditxo nabarra, zatoz ba, nigana!, eta berehala etorriko natzaizu laguntzera.

Zoritzarrez biharamunean kontatu zuenean, anaiek barre egin zioten. Zaharrenak esan zion Kepari:

-Hain ondo zaintzen duzunez, igo arbolara eta deitu.

Kepa arbolara igo zen, baina ez zuen ezer ikusten. Orduan arbolaren beste aldera joan zen eta menditik ogro bi zeudela paseatzen ikusi zuen.

Kepak, itxaron barik, zalditxoari deitu zion: Zalditxo nabarra, zatoz ba, nigana!

Zaldia etorri eta esan zion:

-Ez beldurrik izan eta salto egin.

Zalditxoa galapan jarri eta ogroengana joan zen. Baina zalditxoak esan zuen:

-Bajatu! Holan ez dozu minik hartuko!

Kepa jaitsi egin zen eta zaldiak bere kolore biziarekin eta bere abileziarekin ogroak hil zituen.

Eta hortik aurrera, Kepa zalditxoarekin gelditu zen.

Benetako gertakariak

Iker Colino Santurde
Kirikiño ikastola, 4. maila

Orain dela bederatzi urte nire osaba baten bizitza erabat aldatu zen. Jon aitaren anaia eta nire aitabitxia da.

Nire etxean entzunda daukadana hauxe da:

Urriko astelehen baten gurasoak lanera joan ziren ohi bezala. Nik bi urte nituen eta zaintzailearekin nengoen etxean. Bat-batean ertzaintza agertu zen gure etxean. Zirudienez, abizenagatik nire osabaren familiakoak ginela konturatu ziren. Denbora galdu gabe, nire zaintzaileak aitaren bulegora eta amaren ikastetxera deitu zuen familiako baten bati zer edo zer gertatu zitzaiola esanez.

Ertzaintzak Basurtoko ospitalera joateko agindu zigun eta nire gurasoak amen baten heldu ziren. Hantxe bertan eman zieten berri txarra. Aurreko egunean ohetik altxatzean nire izekoa zorabiatu egin zen eta nire osaba txarto sentitzen hasi zen. Laguntza eskatzeko asmoz sarrerako aterantz abiatu zenean, bera ere zorabiatu egin zen eta hantxe geratu zen hogeita lau ordu atearen ondoan, lurrean jausita, konortea galduta.

Hurrengo egunean, auzokide batek ahots ahul bat entzun zuen eta, zer edo zer gertatzen zela konturatu zenean, larrialdietara deitu zuen.

Ertzaintza, suhiltzaileak eta anbulantzia batzuk joan ziren bertara. Osaba eta izeko hilzorian zeudela esan ziguten eta osaba laster hilko zela esaten zuten medikuek behin eta berriro. Lurrean ordu asko geldirik egoteagatik, giltzurrunak gelditu zitzaizkion eta hankan eta besoan “nekrosis”a zeukan. Nire lehengusua hilda zegoen bere sehaskan.

Izeko eta osaba ZTGen (U.V.I.) egon ziren denbora luzean. Handik bi hilabetera osaba ospitalez ospitale ibili zen besoan eta hankan trebetasun pixka bat lortzeko.

Nahiz eta denbora luzea igaro, ezin zuten semea burutik kendu eta sarritan negar egiten zuten.

Denek jakin nahi zuten zer demontre gertatu zen eta, horregatik, ertzaintzak ikerketa zehatz bat egin zuen. Atera zituzten emaitzen arabera, dioxido karbonikoa eta gasa txarto nahastatu ziren eta, horren ondorioz, haien etxean oso atmosfera toxikoa sortu zen. Beraz, nire lehengusua txiki-txikia zenez lehenago kutsatu eta bertan hil zen. Osaba-izekoak, ostera, bizirik atera ziren baina Jonek eskuineko hanka eta besoa ia mugitu ezinik ditu eta makuluak behar ditu alde batetik bestera joateko.

Geroztik, seme-alabak izaten saiatu ziren baina, lortzen ez zutenez, gero eta tristeago zeuden.

Iaz, nire aitaren osaba bat hil zenean, familia osoa bildu ginen hiletaren egunean eta, bat-batean, nire osaba-izekoak hurbildu zitzaizkigun berri on bat emateko, seme-alabak izatea lortu zutela, hain zuzen ere. Ni oso pozik nengoen baina oraindik alaiago jarri nintzen ume bat izan beharrean bi zirela esan zidatenean. Osaba eta izeko liluratuta zeuden, zoratuta. Guztiokin ospatu nahi izan zuten haurdunaldia, baina aitak beti esaten zien badaezpada ospakizuna haurrak jaio osterako uzteko; izan ere, bi urte lehenago, hirugarren edo laugarren hilabeteen umea galdu zuten.

Bost hilabete ondoren, zer sexutakoak ziren galdetu nien eta bat neska zela adierazi zidaten. Besteari buruz zekiten gauza bakarra ondo zegoela zen. Handik egun batzuetara berriro deitu nituen eta bestea ere neska zela esan zidaten. Nik, poz-pozik, sehaskak, jolasak eta horrelako gauzak eman ahal genizkien galdetu nien gurasoei eta haiek baietz esan zidaten. Urdulizen daukagun udako etxetik, orain dela urte asko gorde genituen gauzak hartu eta garbitu ondoren, haiei eman genizkien.

Handik aurrera hilabeteen hiruzpalau aldiz deitzen nien ea dena ondo zihoan eta noiz jaioko ziren jakiteko.

Abenduaren hogeita hiruan, goizean, izekoa berrikusketa bat egitera joan zen Basurtoko ospitalera eta bere medikuak logela baten gelditzeko esan zion, bere ustez haur biak laster jaioko zirelako.

Arratsaldean nire osabak deitu zigun goizean gertatutako guztia guri kontatzeko eta gu oso pozik jarri ginen. Dutzatu ondoren musikara joan ginen.

Handik irten ginenean, nire aitak osabari deitu zion. Jonek oraindik ez zirela jaio komentatu zion eta aitak etxera joan behar ginela esan zigun.

Etxera heldu eta pijama jantzi bezain laster, nire osabak deitu zuen jaio zirela esateko. Ziztu bizian ospitalera joan ginen.

Osaba Jon, bere emaztea eta nire lehengusinak logela barruan zeuden. Osaba aulki baten jesarrita zegoen nire lehengusina batekin. Neskatoa erdi lotan zegoen eta ez zuen biberoko esne guztia hartu nahi. Izekoa etzanda zegoen ohean beste jaioberriari titia ematen.

Hiru egun egon ziren ospitalean. Abenduaren hogeita seitik etxean daude.

Oso txikiak izan arren itzel politak dira eta orain denok tentelduta gaude haiekin.

Hala eta guztiz, dena ez da izan alaitasuna. Izan ere, nire osabak oinak more ditu ospitalean hainbeste ordu zutik egoteagatik. Nahiz eta medikuak tratamendu bat ipini, oraindik ez zaizkio sendatu.

Jon pozaren pozez dago orain dituen alabekin eta haiek ikustean lerdea dariola dago. Berarentzat bere gaixotasunak ez dauka garrantzi handirik. Berak nahi duen bakarra bere alabak ondo egotea da.

Baina nik pentsatzen dut: bera ondo egoteko eta mugimendua lortzeko erremedioren bat egongo balitz, hori bai izango litzatekeela itzela, azken hamarkada honetan oso momentu txarrak jasan behar izan dituelako.

LEHEN
HEZKUNTZA
(5-6. mailak)



DENBORAREN ERLOJUA

Iñigo Fernández Barbier
La Salle ikastetxea, 6. maila

Bazen behin, herri txiki batean, Antxon izeneko mutil bat. Hamaika urte zituen eta mutiko normala zen Antxon. Ez lodia, ez argala, ez altua, ezta baxua ere. Lagun asko zituen Antxonek eta oso ondo konpontzen zen haiekin. Asko gustatzen zitzaion Antxoni bere bizimodua.

Egun batean, bere lagunekin joan zen herriko jaietara. Atrakzio asko zeuden: topaketa autoak, zaldiko-maldikoa, tiralekua, eta abar. Guztietara igo ziren, eta azkenean, tiralekura joan ziren. Guztiek lortu zuten nahi zuten oparia: pelutxe bat, gezurrezko pistolatxo bat, pelutxezko hartz bat... Baina Antxoni lehenengo ahaleginean erriflea irristatu zitzaion; bigarrenean, ez zuen asmatu eta hirugarrenean, pelutxe bat apurtu zuen balakada batekin. Horrela, tiralekuaren jabeari 15€ eman ondoren, dirurik gabe geratu zen.

Azkenean, guztiek etxera bueltatzea erabaki zuten. Gehienak etxera heldu ziren, Antxon eta Josete, bere laguna, izan ezik. Bat-batean, zoruan, kutxa bat ikusi zuen Antxonek.

-Zer da hau? -galdetu zuen Josetek.

-Ez dakit. Ireki egingo dut jakiteko. -Kutxa ireki eta erloju zahar bat aurkitu zuen. Ohartxo bat zekarren erlojuak: "Arriskutsua".

-Nahi baduzu, hartu. Nik ez dut nahi.
-esan zuen bere lagunak.

-Ongi, hartu egingo dut.

Etxera iritsi zen eta bere buruari esan zion: “Zertarako behar dut nik erloju zahar bat? Aitari oparituko diot, berak nik baino gustukoago izango du eta”.

Baina erlojua ez zegoela orduan konturatu zen. “Ezin diot aitari honela eman. Orduan jarriko dut”. Gero, biraderari eman zion, baina presarekin, pasatu zen. Haize hotza nabaritu zuen aurpegian eta pixka bat zorabiatu zen. Ondoren, bere burua ikusi zuen herriko festetan txinberarekin tiro egiten.

“Ezinezkoa da!!! Amets bat da hau!!!”.

Besteek ezin zuten bera ikusi, baina berak besteak bai. Antxonek ezin zuen sinetsi. Tiro egiten zegoen lekura joan zen eta, txinbera pixka bat altxatuz, lehenengoan eman zion nahi zuen pelutxeari. Ez zuen ez apurtutako pelutxea ordaindu, ezta hurrengo lau balakadak ordaindu behar ere.

Momentu horretatik aurrera egin zituen gauzak ikusi zituen; baina erlojua hartu zuen momentua ikusterakoan, berriz haize hotza eta zorabioa nabaritu zituen eta ohean zegoela nabaritu zuen. Baina ez zela ametsa konturatu zen, lortu zuen pelutxea ohe alboan zuelako. Antxon erlojuak denbora kontrolatzen zuela konturatu zen. “Ze ondo!!!”. Pentsatu zuen. “Denboran bidaiak egin ditzaket!!!”. Pozaz zoratzen ari zen Antxon.

Hurrengo egunean, denboran bidaia asko egin zituen gauza txarrak saihesteko. Adibidez, txikitan, leiho batetik jauzi eta eskuan egin zuen orbaina kendu zuen. Oso gauza onak egin zituen Antxonek denboran atzera eginez. Baina egunak pasa ostean, Antxon aspertzen hasi zen. Ez zitzaion gauza gehiagorik geratzen saihesteko. Eta, bat-batean, esan zion bere buruari: “Orain arte lehenaldira joan naiz, baina, etorkizunera joaten banaiz?”

Orduan, etorkizunera joan zen. Bi egun joan zen aurrera zer gertatuko zitzaion ikusteko. Baina ez zitzaion ezer gertatu, erlojuarekin baitzegoen denboran bidaiatzen. Hogeita hamahiru urte joan zen aurrera denboran, baina erlojuarekin zegoen. Azkenean bere heriotzaren momentura heldu zen. Bizitzan ez zuen ezer egin, ez disfrutatu, ez ezer ere ez.

Oso triste geratu zen Antxon. Bere heriotza ikusi eta gero, denboran azken bidaia egin zuen: hamaika urte zituen unera arte. Antxonek bere burua ikusi zuen Joseterekin bidetik etortzen. Zoruan, erlojua ikusi zuen kaxaren barruan, eta, zalantza barik, ostikada ederra eman zion. Beste askotan bezala haize hotz bat nabaritu zuen, eta pixka bat zorabiatu zen. Gero ohean aurkitu zen.

Hortik aurrera, Antxonek goiburu bikain bat dauka: “BIZITZA DISFRUTATZEKO DA”.



KOLORERIK GABEKO TXIMELETA

Amaia García
Deustuko ikastola, 6. maila

Orain dela hirurogeita hamabost urte edo laurogei, ez nago ziur, Miran izeneko tximeleta bat bizi zen baso polit batean.

Miran kolorerik gabekoa zen, zeren eta oso triste zegoen guztiek burla egiten ziotelako.

Egun batean, Miran bere lagunekin jolastera joan zen.

-Kaixo lagunok, zuekin jolastu dezaket? -esan zuen Miranek.

-Nork hitz egin du? -erantzun zuen Jonek burlarako.

-Ja, ja, jaaaaaa... -barre egin zuten besteek.

Miranek orduan, hauxe esan zien:

-Kolorerik gabekoa naiz zuek burla egiten didazuelako!

Azkenean, Miran etxera joan zen eta etxerako bidean kartel bat ikusi zuen.

Hauxe jartzen zuen:

Bihar IBILALDI bat egingo dugu

basoan zehar. Etorri nahi baduzue

Joan Tximeli dendara apuntatzera



Orduan, Miran Tximeli dendara joan zen. Tximeli dendan zegoela:

-Arratsalde on, norbait al dago dendan? -esan zuen Miranek.

-Beitu nor etorri den, Maritxi! Kolorerik ez duen tximeleta! -esan zuen Tximilik.

-Bai! Ja, ja, ja, ja... -erantzun zuen.

-Aizue, hona etorri naiz apuntatzera ez barre eragitera -esan zuen Miranek.

-Orduan, zer, apuntatuko nauzue, ala zer?

-Ongi. Nola deitzen zara? Tontolapiko ala itsusi? Je, je, je...

-Miran deitzen naiz, ongi? Azkenean, Miranek izena eman eta gero, etxera itzuli zen. Afaldu ostean, Miranek hurrengo eguneko ogitartekoa prestatu zuen, bere gogokoena nektarduna. Hortzak garbitu eta gero Miran ohera joan zen, ibilaldi egunean sendo egoteko.



Hurrengo goizean, Miran oso osasuntsu eta sendo esnatu zen. Orduan, bere motxila hartu eta taldea biltzen zen lekura joan zen. Leku horretan bere “lagunak” joateko zorian zeunden. Miranek agurtu egin zituen:

-Kaixo, zer moduz zaudete? -tximeletek ez zuten, ez erantzun, ezta kasurik egin ere. Taldeko gidariak kaixo oso txikitxo bat bota zuen.

Miran apur bat triste zegoen, baina bidaia hasteko irrikitan. Hamar minutu pasa ondoren, bidaia hasi egin zen. Guztiak, Miran izan ezik, multzo batean zihoazen. Miran atzean zihoan, betiko moduan, baina Miranentzat egunerokoa zen.

Basoaren erdia zeharkatuta, tximeletak hegaz hasi ziren. Beren hegoak luzatu eta astintzen hasi ziren. Miran ere bai.

-Ja, ja... Miranen hegoek ez dute kolorerik hegoetan -hasi zen tximeleta bat zirikatzen.

-Bbbaaii.. -erantzun zuen beste batek.

Horrela, denbora batean zirikatzen egon ondoren, baserri batera heldu ziren. Tira, hobeto esanda, baserri baten ondoan zegoen zuhaitz batera.

-Aizu gidari, joan al gaitzke baserri horretara? -galdetu zuten tximeletek.

-EZTA PENTSATU ERE! -erantzun zuen gidariak.

Tximeletek ez zuten kasurik egin, eta baserrirantz abiatu ziren.

-EZ JOATEKO ESAN DIZUET!!! -jarraitu zuen gidariak.

Umeek ez zutela entzun ematen zuen; baina bai, entzun zuten.

Orduan, bat batean katu bat agertu zen. Tximeletak izututa zeuden.

-LAAGGUUUNNNNDDDDDDUUU!!!!!!!!!!!!!! -oihukatu zuten guztiek batera.

Orduan, Miran (txoko batean zegoela) katuaren bizkarrean jarri eta txitximurka egin zion. Katuak ihes egin zuen eta tximeleta guztiak salbu geratu ziren. Guztiek eskerrak eman zizkioten.

Miran oso pozik jarri zen eta koloreak berreskuratu zituen. Guztiak bere lagunak ziren eta oso ondo esaten zioten. Miran kolore politenak zeuzkan tximeleta zen.

Azkenean, Miran, oso, oso, oso pozik bizi izan zen.

Grafittiak eginez

Mikel Erkiaga Herrán
Félix Serrano ikastetxea, 6. maila

Duela 5 urte gertatutako istorioa kontatuko dizuet orain.

Euskadiko herri batean gertatu zen, Lekeition.

Ander izeneko mutila Ispi eskolara joaten zen. Eskola amaitu ondoren, lagunekin egoten zen arratsaldeko zazpiak arte. Gero, etxera joaten zen etxeko lanak egitea.

Egun batean, lagunekin joan zen frontoira jolastera eta hara ailegatu zirenean, lau mutil ikusi zituzten sprayekin grafittiak egiten. Anderri izugarri gustatu zitzaion eta horrelako bat edo batzuk egingo zituela erabaki zuen. Amari galdetu zion ea grafittiak egin ahal zituen, baina amak:

-Ezta pentsatu ere! Hori egitea legez kanpo dago.

Ander pixka bat goibeldu zen, baina gauza bat pentsatu zuen: "Amak ez utzi arren, grafittiak egingo ditut".

Lagun batzuei galdetu zien ia beraiei ere gustatzen zitzaaien eta Anderrek grafittiak egitea gustatzen zitzaaien lagun mordoa lortu zuen.

Gaua iritsi zenean, Ander ohera sartu eta pentsatzen jarri zen. "Grafittiak egitean arriskurik ez izateko modu bat aurkitu behar dut".

Aste osoa pasatu zuen horretan eta ez zitzaion ezer otutzen. Lagunei galdetzen zien baina haiek ere ez zekiten.

Egun batean, etxeko lanak egiten zebilen eta, alkateari buruzko testu bat egiten ari zela, FLAS!!! ideia bat otu zitzaion.



Hurrengo egunean lagunekin bildu zenean haxe esan zien:

-Aizue! Otu zait grafittiak egiteko modua.

Eta Mikelek, bere lagunak, esan zion:

-Zer otu zaizu? Gauero kalera irtetea grafittik egitera?

-Ez. Entzun. Klasea amaitu ondoren, alkatearengana joango gara eta grafittientzako parke bat egitea proposatuko diogu. Horren truke, parkera sartuko den bakoitzak 5 € ordaindu beharko ditu.

Lagunek, ondo pentsatu ondoren, ideia ona zela erabaki zuten.

Klasea amaitu zen eta etxeko lanik ez zuten mutilak udaletxerantz abiatu ziren alkatearekin hitz egiteko prest.

Anderrek alkateari ideia proposatu zion.

-Pentsatu beharra daukat. Etorri bihar ordu honetan erantzuna jasotzera -esan zien Alkateak.


Eta halaxe egin zuten. Hurrengo egunean alkatearengana itzuli ziren berriz, eta hark haxe esan zien:



Ondo da!! Eskatutakoa emango dizuet ideia galanta da eta!

Ander eta lagunak asko poztu ziren.

Bi urte pasa eta gero, parkea amaituta zegoen eta Lekeitioko grafittero guztiak joaten ziren grafittiak egitera.



Entziklopedia

Ander Portillo Bazaco
Félix Serrano ikastetxea, 6. maila

Egun baten, nire amama Madalenen etxera joan ginen jatera. Han geundela, berak txikitan bizitako istorio xeble eta polit bat kontatu zigun.


Mundakan jaio zen bere zortzi neba-arreben moduan eta denek herriko eskolan ikasi zuten. Kurtso bakoitzean “entziklopedia” deituriko liburu bakarra zuten eta neba-arreben artean txandakatu behar izaten zuten.

Neguko egun batean, berak zortzi urte inguru zituenean, okina Udaletxeko plazara heldu zen kamioneta batean, normalean egiten zuen moduan, ogiz betetako saskiekin. Amama harrituta gelditzen zen garraiobide hori ikusten zuen bakoitzean eta egun hartan, birritan pentsatu gabe, kamionetaren atzeko aldera igo zen. Sekula ez zen horrelako batean igo, ezta gaur egun hain ohikoa den kotxe batean ere.



Martxan hasi zela sentitu zuen eta beldurra sartu zitzaion gorputzean. Ez zekien nora zihoan ezta zer gertatuko zitzaion okina Mundakatik kanpo irtendakoan ere. Hortaz, segundo batzuetan pentsatu ondoren, kamionetatik salto egitea erabaki zuen. Pentsatu eta egin. Amamak oso urrun zegoela uste zuen, baina Mundakatik irteten den errepidearen erdian zegoen.

Zauri bat baino ez zuen egin belaunean baina, altxatu zenean eta soinekoa garbitu ostean, entziklopedia ahaztu zuela konturatu zen. Errepidetik korrika hasi zen kamionetaren atzean, baina alferrik. Bere liburua, eta ahizpa eta neben liburu famatua, kamionetaren barruan zegoen. Ez zekien zer egin, ezta gertatutakoa etxean nola azaldu ere.



Hurrengo astean, okina kamionetarekin berriro itzuli zenean, nire amamak gertatutakoa azaldu eta gero, gizonak barrezka itzuli egin zion entziklopedia.

Baina entziklopedia agertu baino lehen ez zuen oso ondo pasatu, beste gauza batzuen artean, garai hartan maisu-andereñoak oso gogorrak eta umore txarrekoak zirelako eta zigortzen zutelako.

Andereñoa, kamionetaren istorioa entzuterakoan, amamari zaplazteko bat emateko asmoz altxatu zen, baina amamak asmoak ikusi eta korrika hasi zen gelatik. Ikaskideek ez zuten barrerik egin, debekatuta baitzegoen. Azkenean, andereño zaharra nekatu eta bere aulkian eseri zen. Amamak berdina egin zuen eta ez zitzaion ezer gertatu.

Hurrengo astean, aste guztietan bezala, okina bere kamionetan heldu zen eta amama eta ahizpa bati galdetu zien ia nahi zuten kamionetan bira bat eman. Biek baietz esan zuten eta poz-pozik joan ziren, bata gidaria joaten den lekuan eta, bestea otzarekin. Bira bat eman zuten Mundakatik eta gero Bermeora joan ziren. Han nire amonak ogia banatzen lagundu zion. Mundakara itzultzean, okinak esne litro bat eman zien laguntzeagatik.

Azkenean, okinaren eta entziklopediaren istorioa oso ondo bukatu zen, eta nahiz eta urte asko igaro, nire amamak atzo izan balitz gogoratzen du.

Peio eta Arinen abentura


Jon Fernández Iturregi
Kirikiño ikastola, 5. maila

Bazan behin mutiko txintxo bat, Peio izena eukana. Berak anaia bat eukan eta animalien arrastoetan oso ona zan. Peiori asko gustatzen zitzaizkion zaldiak eta nagusia izatean, munduko zaldunik hoberena izango zala espero eban. Bere aitak bi zaldi eukazan, bat emea eta bestea, barriz, arra. Peiok emeari, erditzerako momentuan, kumea ateratzen asko lagundu eutson eta horregaitik orain kumea Peioren da. Peiok kumeari Arin deitu eutson ze korrika asko egiten eban. Peiok hamalau txapelketa irabazi ebazan Arinekin eta oso pozik zegoen.

Egun baten, gizon batzuk Arin lapurtu eben eta Australiara joan ziran. Peiok motxila hartu eta anaiarekin joan zan zaldiz Australiara. Australian bere lehengusinagaz aurkitu ziran eta hantxe lo egin eben. Peio eta anaia Australiaren iparraldean zeuden. Peioren lehengusinarekin aita Caberrako serifa zan eta Arinen gauzaz enteratuta zegoen. Berak hegoalderantz joan behar zirela esan eutsen eta horra joan ziran biak Arinen bila. Hiru egun geroago, hondartza baten zeuden eta urrunean gizon batzuk ikusi ebezan Arin itsasontzi baten sartzen. Peiok hauxe esan zien:

-Aizue, zaldi hori nirea da!!!

-Harrapatu eizuez bi mukitsu horreek!!!- esan zien gizon altuak beste gizonei.



Baina Peiok eta bere anaiak zaldiz ihes egin eben. Hurrengo orduko itsasontzi baten sartu eta Istanbulera abiatu ziran mediterraneo itsasoa zeharkatzeko.

Hogeita bost egun pasata, Istanbulera ailegatu ziran. Han, turkiar amona zegoen eta bere etxera joan ziran. Han jana emon zien. Egun batzuk pasata, Peio eta anaia museo batetik pasatu ziren eta gizon horiek ikusi ebezan eta hauxe entzun zuten:

-Bihar goizeko bostetan hiruki plazan!!!

-Ondo, bihar egongo gara!!! esan eban Peiok.

Hurrengo egunean, Peiok bere anaia esnatu eta hiruki plazara abiatu ziran. Han zeuden hiru gizon maltzur horiek Arinekin.

Gizonek ez eben Peio ikusi eta esan eutson Peiok anaiari:

-Jarraitu beraien ideia.

Anaiak atzamarrarekin keinua egin eutson baietz esanez. Peio gizonaren kotxearen maletategian sartu zan. Bertatik Peiok anaiari joateko keinua egin eutson eta anaia arrapaladan joan zan amamaren etxera. Gizonek soka bat hartu eta kolpe-leungailuan lotu eben eta beste aldea Arinen lepoaren inguruan lotu zuten. Gizonen laborategian hamalau zaldi zeuden. Danak amonarenak!!!

Peiok ate guztiak botoi batez ireki ahal zituen eta botoi hura sakatu eta.... Peiok zaldi guztiak askatu eta Arinen lepora lotu ebazan sokagaz. Gaua zan. Gizonak ez ziran konturatu baina, Arinen irrintzia entzutean, Arinen bila atera ziran. Peiok hamalau zaldiak amonaren etxera eroan ebazan Arinekin. Ondoren, bere anaiarekin bere etxera joan zen, Turkiatik Mungiaraino. Mungian aitari dana kontatu eta gero, aitak barkatu egin eutson. Gauean Peiok pentsatu eban ezin zela bere etxean egon bestela gizonek Arin aurkituko ebela.

Peio Arinen gainean jarri, bere belatza besoan ipini eta Gorbealara abiatu zan. Gorbeian Peiok paper zati bat hartu eta hauxe idatzi eban:

Aita:

Peio naz. Gorbeian nago ze etxean ez nago oso seguru ezta Arin ere. Hiru gizon aterako balira, zuek ezer ez dakizuen itxura egin.

Erantzun:

Peio

Momentu horretan belatzaren hankan papertxo ipini eta etxera joateko esan eutson. Orduan, belatza hegaz hasi zan.

Hiru ordu geroago, belatza berriro etorri zan beste papertxo batekin. Aitarena zan eta poliziek gizon haiek harrapatu ebezala esaten eban. Peiok hau esan eban:

-Zelako zortea!!!

Etxera joan zan eta serifak lau sarrera emon zizkion zaldien munduko txapelketarako.

-Ringggg.... !!!! -jo eban iratzargailuak

Peio ohetik altxatu eta desanimatu egin zan. Amets bat besterik ez zan. Sukaldera joan zan. Han zegoen aita lau sarrerarekin. Peiok hauxe galdetu eutson:

-Zertarako dira lau sarrera horreek ?

-Zaldien munduko txapeletarako!!! -esan eban aitak.

Peiok garrasi egin eban holan:

-Lupiiiiiii !!!

Gero bere familiagaz joan zan.

Hogeita lau urte geroago Peio zaldien munduko zaldunik hoberena da. Baina beti eroan dau Arin bere bihotzean.

Uso zuria.

**DERRIGORREZKO
BIGARREN HEZKUNTZA**
(1-2. mailak)




Bi emakume

Irati Malatsetxebarria Elizegi
Gabriel Aresti B.H.I, 2. maila

“**N**ire bidaiaren bigarren hilabetea esan nion neure buruari ezin nuela jarraitu beldur hura jasaten. Jada bi hilabete ziren zu, artean bi hilabete zenituenak, eta biok ihesian genbiltzala mendian barrena. Izozte eta euriteak jasan genituen artean eta goseak geunden. Negu gordinean zuhaitz eta landareek eman zitzaketen fruitu eskasak genituen elikagaitzat. Egunak eman genituen lo eta atsedetik gabe ibilian, beharrezko higiene garbiketaren eskasian. Egoera hartatik irteteko erabakia, beraz, espero izatekoa zen. Baina nola lor nezakeen eguneroko bizitzara itzultzea ni hil nahian zebilen senarra atzetik bageneukan? Ikaratuta nengoen eta ez nekien zer egin.

Hartan pentsatzen nenbilela, tximinia baten kea sumatu nuen urruneko zuhaizti baten. Agian, ni laguntzeko prest egon zatekeen bertako bizilaguna. Beraz, kea zetorren norabiderantz abiatu ginen. Nire harridurarako, guztiz berriztatutako baserria topatu genuen. Zure gorputza bizkarrean lo neramala, jo nuen atea eta bikote gazte batek egin zigun harrera, egun batzuetarako ostatua eskainiz. Atsegin askoak izan ziren biak eta aparteko afaria prestatu zuten niretzat. Ez zidaten galderarik egin gure itxura negargarria zela eta, ezta gure bat-bateko agerpen misteriotsuaren gainekorik ere. Bihotzez eskertu nien diskreziozko keinu hura, ze ez dut uste gai nintzenik azaltzeko.



Ez nekien nire herritik zenbatera nengoen, agian, nahikoa urrun zen bizi berri bat hasteko, atzean utziz nire ezkon bizitzan jasandako eraso bortitzak. Nire senarrak ni topatuz gero, bizirik jarraitzeko aukerak oso eskasak zirela banekien arren, ezin nuen jarraitu mendian zehar ibiliz. Hurbilen zegoen herriaren izena aditzean, jabetu nintzen benetan azken hilabeteetan egindako kilometroez. Autobusez Pirinioen erdia zeharkatu ostean, Kataluniara iritsi ginen oinez eta bertan mendian barna egon ginen hilabete pare batez. Kostaldetik hurbil geunden eta horrek zoriontsu egin ninduen, askatasunerako bidearen azken txanpan aurkitzen ginela susmatzen bainuen. Hiri batean babestuago egongo ginela pentsatuz, Bartzelonara eramán gintzan eskatu genion bikoteari.

Hiriburura heldu ginenean, eskerrak eman genizkien bi gazteei eta gaua pasatzeko leku bila hasi ginen. Ostatu merke xamar batean egin genuen lo, ez bainean ia dirurik leku erosoago batera joateko. Baina modu hartara moldatuz joan ginen apurka-apurka.


Bartzelonara heltzean, ez nuen diru askorik; hala ere, geroago, pezeta bakar barik topatu nuen neure burua. Emakumea eta errepublikarra izateak kenduak zizkidan lan egiteko aukera guztiak. Baina, hala ere, ederki disimulatu nuen eta zu ume zoriontsua zinen.

Hilabeteak eman genituen horrela baina, jan gabeko egunak pasatu zirenean, debekatutako mundura jo nuen. Bekatuaren mundu lizunera, desioaren mundura. Zu ez zinen konturatzen. Urte asko pasatu nituen gorroto nuen lan hura egiten eta nerabea zirenean ere ez zenuen jakin. Gaua nuen gotorleku eta zure loak estaltzen ninduen. Nire bizitza zorigaitzoko ametsa bihurtu zen, baina aurrera jarraitu nuen. Zuregatik maitea.

Egun batean, baina, gaixotu egin nintzen HIESA-k jota eta zu konturatu zinen nire gaixotasunaz. 16 urte zenituen jada. Ez zinen haur bat eta gogoratu behar duzu nola azaldu nizun zer gertatzen zitzaidan:

-Zer duzu ama? Ondoezik zaude?

-Bai seme. Bartzelonara etorri ginenean dirurik gabe ginen eta prostituzioan topatu nuen lana. Horixe zen nire ideia politikoengatik geratzen zitzaidan aukera bakarra. Uler iezadazu seme, mantendu behar zintudan eta gure herritik urrun geunden. Zure aitag joanarazi gintuen Bilbotik. Ni hiltzearekin egon zen! Eta orain ere zendu beharrean nago, lehenago edo beranduago. Baina zin egin noizbait itzuliko zarela zure herrira, eta Katalunia beste maitatuko duzula...



Utziko diot hau idazteari. Ordu kontua da nire gorputzak eutsiko duena. Bizitza aurrera doa zuretzat, eta atzera niretzat. Maite zaitut maitea, eta gogoratu zeren alde egin zuen borroka zure amak bere azken hatsera arte. Defenda ezazu berdintasuna beti”.

Atzo goizean gizon bat atxilotu zuten auzoan. Benetan atsegina ematen zuen, maitagarria. Bere emaztea zen zoragarriena, ordea. Txiki-txikiak ginenetik bere seme-alabak izango bagina bezala tratatu gintuen. Atzo, baina, lanetik bueltan poliziaren autoa eta anbulantziarena ikusi nituen. Bihotza geratu zitzaidan gure “ama” bertan sartu zutenean erdi hilik. Atariko atean bikotearen alaba zegoen zerbaiten zain, zerutik etorritako seinaleren baten zain, agian. Guztia gezurra dela esanez. Eta ni urreratu nintzaion.

-Sartu etxera, hator barrura. -esan zidan ahots zoli eta goibelez.

-Bere amak, nire amonak, idatzi zion hau aitari gaztea zela. Eta azkenean hau egin dio amari, bereari eta nireari -bota zuen behin etxeratutakoan.

Neskato hura eta biok lagun egin ginen. Batuak ginen bihotzera heldua zitzaigun borroka batean eta inork ez gintuen geratuko. Inork ez.

Munduan gizonen eskutan hildako emakume guztien izenean.

Tigeen bidaia luzea


Iraide Arruti Salguero
Gabriel Aresti B.H.I, 1. maila

Baziren behin bi tigre Zuri eta Ilun deitzen zirenak. Zuri emea zen eta 17 urte zituen eta Ilun arra eta 18 urte zituen. Zuri tigre zuri-zuria zen, ez zuen marra bat ere eta Ilun beltz-beltza zen.

Egun batean, Zurik eta Ilunek ezkontzea erabaki zuten. Apaiza Ilunen aita izan zen eta eratzunen jabea edo eroalea Zuriren ama. Ezkondu ostean, bidaian joatea pentsatu zuten eta lehenbizi Kubara joan ziren.


Kuban ezkonberriek munduko tigrerik zaharrena ezagutu zuten, Jator. Jatorrek 56 urte zituen eta zirkoan lan egiten zuen. Handik hiru egunera, hiltzeko zorian zegoela, hauxe esan zien:

-Nik ez daukat ez familiarik, ez lagunik. Nire familia bakarra zuek zarete. Orduan hartu ezazue kutxa gotor horretan dagoen diru guztia eta joan zaitezte zuen eztei bidaia ospatzera.



Lehenengo Amazonasera joan ziren. Han ehizan ari zirela, sagu bat pasatu eta biek batera egin zuten:

-Aaaaaa!!!



Orduan sagua korrika joan zen oihukatuz: Aaaaaaa!!!

Eta tigreek oihukatu zuten:

-Itxaron. Hitz egin nahi dugu zurekin!

Orduan, sagua gelditu eta esan zien Zuriri eta Iluni:

-Ez nauzue jango, ezta?

-Ez, lasai -esan zuten biek- zure laguntza behar dugu. Eztei bidaia ospatzen gaude eta ez dugu hau ezagutzen.

-Indartsuak zarete? -esan zuen. Zuen indarra neurtzeko ibai batera joango gara; baina, kontuz, pirañaz beteta dago eta.

Hori esan eta gero, hara joan ziren eta pirañak ikusita pixka bat kikildu ziren.

Baina, orduan, saguak esan zien:

-Beldur zarete? Oilo halakoak!


Orduan, Ilun pirañen gainean bota eta banan-banan denak hiltzen hasi zen.

Geroago, guztiak hartu, zorro batean sartu eta Egiptora abiatu ziren. Egipton momia bat ikusi zuten piramide batean eta, joaten zeudela, faraoi baten katua agertu zen. Oso itsusia zen benden barruan hezurak baino ez zeuzkalako baina lagunak egin ziren eta katu-momiak faraoiaren aberastasunaren zati bat eman zien Zuri, Ilun eta saguari. Momia beldurgarria zen.

Geroago, Parisera joan ziren. Han Eiffel dorrera igo ziren oinez igogailua apurtuta zegoelako. Pariseko zirkoa ikustera joan ziren baina tigre ikuskizuneko tigre biak, Tigris eta Indu, ihesi joan ziren eta orduan, Ilun eta Zuri atera eta beste bi tigreen ikuskizuna egin zuten. Gero, han zeuden animalien lagunak egin ziren, batez ere, lehoi eta kokodriloarena.

Ondoren, hurrengo lekuen hauek bisitatu izan dituzte: Mexiko, Sumatra, Txina, Maldivak, Japonia, Sri Lanka eta abar.

Azkenekoz, Estatu Batuetara joan ziren. Han, etxe altu-altu batera igo ziren. Igotzerakoan igogailuz igo eta bidaiaren




erdian igogailua eskegi egin zen. Aste osoa eman zuten arraina jaten igogailuan. Atera ondoren, eskailera batzuetatik zetozen laguntza oihuak entzun zituzten:

-Lagundu!!!

Bi tigreak eta sagua korrika hasi ziren. Heldu zirenean, haur bat errepidera joaten ikusi zuten. Zurik eta Ilunek umea salbatzera joatea pentsatu zuten. Umearen ama, bitartean, poliziari deika zegoen. Zurik eta Ilunek umea hartu eta emakumeari itzuli zioten. Emakumea hainbeste poztu zen, ze tigreei muxu bana eman zien eta baita etxe bat eraikitzeko hainbat material ere.

Abentura guztiak eta gero, Himalaiara joan ziren bizitzera. Haien izerdi eta nekearekin etxe zoragarri bezain handi bat eraiki zuten. Haien fruituetatik lehenengo tigre zuriak jaio egin ziren. Eta horrela errepikatu zen istorioa behin eta berriz.



q=k

o=A

o=i

o=x

o=o



Amaia Aldama
Miguel de Unamuno B.H.I., 2. maila

Narrazio hau nire bizitzari buruzkoa da. Modu labur batez idatzia dago eta nire azken arnasketan nola sentitzen nintzen adierazten du. Nire gogo eta ahalegin guztiak jarri ditut ondo eta zehatz idazteko, gauza asko ahaztuta baititut:

Egun argia zen benetan. Hodeiak iparraldera zihoazen haize bortitzaren laguntzaz. Eguzkiak dir-dir egiten zuen eta nire balkoiko eguzki lorearen petaloak, eguzkiaren lehenengo izpiekin altxatu ondoren, balkoia biziaz betetzen zuten.

Hala ere, egoitza baten barruan nengoen, kartzela baten. Egunero, erizain batek esnatu eta errezelak zabaltzen zizkidan, egunaren lehenengo momentuak bizi ahal izateko. San Paul deitzen den egoitzan bizi nintzen. Egoitza hau Gasteizetik oso hurbil dago, hamar bat minutura kotxez joanda. Nire egoera oso gogorra zen eta hiltzeko arrisku handia neukan, alzheimer deritzon gaixotasun larria bainuen. Ez dakizuenentzat, Alzheimer-arekin buruko neuronak pixkanaka-pixkanaka hiltzen dira. Neuronak hiltzean desoreka handia sortzen da eta nire buruan gauzak ahazten dira. Horren ondorioz, familia bisitan etortzen zen batzuetan ez nintzen haien izenaz gogoratzeko; eta hori ez da batere atsegina. Haiek beti alkandoran edo kamisetan karteltxo txiki bat zeramaten, haien izenaz ez ahazteko, gauza gehienak ahazten baintuen.

Nire bizitzako une garrantzitsu batzuk ahaztuta nituen. Horregatik, gauero egunerokoa hartu eta idazten hasten nintzen. Teknika hau egiten hasi nintzenean 2004. urtea zen; horregatik, oso argi neuzkan 2004. urtetik aurrerako gauza guztiak. Behintzat, aurreko urtekoak baino argiago.

Orain dela zazpi urte hauteman zidaten Alzheimerra eta, aurrerapauso handiak egon arren, ez zegoen itxaropen handirik.

Bi seme-alaba nituen: Eder eta Amaia. Eder 42 urteko ezkongabea zen. Ez zen sarritan etortzen ni bisitatzeraz, baina barkatzen nion beti lanean zegoelako eta bere bizitza jarraitzeko bide bakarra zelako. Amaia 35 urtekoa zen. Ezkonduta zegoen eta bi seme zituen. Ostiralero etortzen zen bi semeekin eta gehienetan ez nintzen haien izenaz gogoratzen. Karteltxoak zituzten beraien izenaz gogoratzeko baina, denbora pasa ahala, idazten, irakurtzen, janzen, jaten, eta abar egiten ahaztu zitzaidan. Horregatik, negarrez joaten ziren egoitzatik, aitonak ez zutela maite pentsatuz. Baina oso txikiak ziren nire gaixotasunaren berri jakiteko, horren ondorioz, bi urte edo pasa beharko ziren berri txar hau jakiteko.

Ekainean egun zoragarriak egiten zituen. Nire egoitzako lagunekin lorategira joaten nintzen eta nire bi ilobak, hanka bakoitzean eserita, haiek ekarritako liburuxka batzuk irakurtzen zizkidaten. Nik bitartean eguna nola zihoan ikusten nuen eta oso gustura geratzen nintzen liburuaren hitzak haien ahotik ateratzerakoan. Nahiko nuke egun horiek inoiz amaitu izan ez balira.



2006ko martxoaren 24a zen. Esnatzerakoan txarto sentitu nintzen. Banekien txarrera joango nintzela eta gainera eguzkia joanda zegoen eta haizeak hodei beltz-beltzak ekartzen zituen. Nire eguzki lorearen petaloak haizearekin jausi ziren eta batek bakarrik jasan zuen haizearen indarra. Erizaina beti bezala etorri zen nire logelara baina arren eskatu nion errezalak ez baztertzeko eguraldi txarra egiten baitzuen. Gosaltzeko unean, ez neukan indarrik. Ez nekien jaten, ahaztuta neukan. Ostiralero bezala, Amaia etorri zen eta hori izan zen unerik latzena. Etorri zenean, ez nekien nola deitzen zen eta ezin izan nuen berarekin hitz egin niretzako ezezaguna zelako. Jainkoari esker ez zituen bere bi semeak ekarri.

Oso ahul sentitzen nintzen. Banekien neurona gutxi geratzen zitzaizkidala, baina ez nuen gogoko hiltzea, eta neure buruari eskatu nion azken momentura arte borrokatu zezala, ez bainuen nire familia bakarrik utzi nahi. Ohean sartu nintzen eta nire ohe alboko mahian zegoen egunerokoa hartu eta irakurtzen saiatu nintzen. Alferrik zen. Ezin nuen ezer ulertu ez nekielako irakurtzen eta azken egunetako idazkera oso txarra zen.

Begiak itxi nituen eta nire bizitzako momentuak gogoratzeko ahalegin guztiak egin nituen. Baina alferrik izan zen, dena beltz ikusten nuen. Nire neuronek ezin zuten gehiago eta guztiak hil eta desagertu ziren eta beraiekin batera ni ere bai. Azken hasperenean eguzki lorearen azken petaloa jausten ikusi nuen, pixkanaka-pixkanaka haizearen indarrez.

Alde batetik, pozten naiz hil naizelako. Horrela, ez dut nire gaixotasunarengatik gehiago kezkatu beharrik eta, gainera, emaztearekin egoteko denbora gehiago dut paradisu honetan.

Ustekabeko gutuna

*Uxue Zugaza Goienetxea
Atxandape ikastola, 1. maila*

Dena hasi zen 2000. urteko irailean, institutuko lehenengo egunean. 4. maila hastera gindoazen, denok oporretatik bueltatu ostean.

Nire lagun mina Holandan egon zen. Gauza asko kontatu zizkidan: non egon zen, zelan pasatu zuen, ze lagun egin zituen... Ni berak Holandan egindako lagun bilbotar bategatik interesatu nintzen eta haren helbidea eman zidan. Oso majoa omen zen eta gainera guapoa. Ez nion ezetz esango, ba!

Etxean aspertuta nengoela, helbideaz gogoratu nintzen eta gutun bat bidaltzea bururatu zitzaidan. Jolasteagatik egin nuen, ez gehiagogatik. Tira, egia esan, curiositate apur bat banuen. Hauxe idatzi nion:

Kaixo:

Zure helbidea lortu dut, baina ez dakit nor zaren. Egia esan, gustatuko litzaidake jakitea, zutaz asko hitz egin baitidate.

Ane naiz eta Bilbokoa naiz.

Nongoa zara? Nola duzu izena?

Erantzun nahi badidazu, helbidea aurreko partean daukazu. Gustatuko litzaidake erantzutea.

Muxu asko.

Ane

Nik ez nuen espero berak erantzutea, nik neuk horrelako gutun bat jasoko banu, pikutara bidaliko bainuke. Baina probatzeagatik...

Bizitzak beti bezain aspergarri jarraitu zuen, aste horretako osteguna heldu zen arte. Arratsaldean, ikastolatik heltzean, mahaiaren gainean niretzako gutuna zegoen. Hasiera batean, propaganda horietako bat izango zela pentsatu nuen; baina ezetz konturatu nintzen. Ez zen edozein gutun; ez zuen izenik jartzen. Eta berehala konturatu nintzen nik idatzitako gutunaren erantzuna zela. Hau oso interesgarria zen! Oso pozik jarri nintzen. Azken finean, mutil horrek erantzun egin zidan eta hori garrantzitsua zen. Ilusio handia eman zidan, ez bainuen mutil horrek erantzuterik espero.

Azkenean, jakin-min handiarekin gutuna zabaldu nuen. Honela zioen:

Kaixo Ane:

Zure gutuna jaso dut eta erantzutea pentsatu dut. Hasteko, ez dakit nola lortu duzun nire helbidea eta jakitea gustatuko litzaidake. Ikusten duzun bezala, ni ere Bilbokoa naiz, eta Eneko dut izena. Espero dut erantzutea, nik egin dudana bezala.

Musuak,

Eneko

Egia esan, gutuna irakurri eta minutu pare batez pentsatzen geratu nintzen. Ez nekien erantzun ala ez. Nahiz eta oso seguru ez egon, azkenean erantzun egin nion. Gutun hau jolasteko egin nuen. Ez nuen urrutira joan nahi, ez bainintzen asmo horrekin hasi. Zera idatzi nion:

Kaixo Eneko:


Ikusi duzun bezala, jaso dut zure gutuna eta egin didazun galderari erantzunez, nola lortu dudana helbidea, esango dizut: Nereak, Italian egin zenuen lagunak, eman dit. Ez dakit berak kontatu dizun, baina ni bere laguna naiz eta zure helbidea eskatu nion. Mesedez, ez haserretu Nerearekin helbidea emateagatik. Bere asmoa ez zen txarra, gainera ni izan nintzen eskatu niona.

Egun horretan bertan kontatu nion Nereari Enekorena. Ipinu zuen aurpegiagatik ez zitzaion asko gustatu, baina ez zuen ezer esan. Ez nuen ulertzen nola ez zitzaion gustatzen nire lagun minari (nahiz eta berak ez esan) nik bere lagun bati gutunak bidaltzea. Ez zitzaidan gustatu Nerearen portaera, baina isilik geratzea hobeagoa izango zela pentsatu nuen. Denak jarraitu zuen lehen bezala, ezer gertatu izan ez balitz bezala. Baina nik Nerea apur bat minduta ikusten nuen eta ez nekien zergatik...

Hilabeteak pasatzen joan ziren eta Eneko eta biok elkarri gutunak bidaltzen jarraitu genion.

Nahiz eta gutunen bidez bakarrik ezagutu, berarekiko nuen harremana estutu egin zen. Jada ez zen ezagun bat, lagun bat bezala hartzen nuen. Astero-astero gutxienez gutun bat bidaltzen genion elkarri... Gainera, beraren argazkiak nituen, berak bidalitakoak. Nereak esan bezala, oso guapoa zen, joe!

Jada berarengatik sentitzen nuena, adiskidetasuna baino gehiago zen. Ez neukan oso argi zer zen, baina ez zen lagun bat niretzat. Hori baino gehiago zen...



Nereari kontatzea pentsatu nuen eta hala egin nuen. Mutu geratu zen, lurrari begira. Ez zuen erantzun. Nik berriro ere kontatu nion. Oraingoan erantzun egin zidan, baina ez zirudien lagun on baten aholkua. Zerbaitegatik minduta zegoela zirudien, norbaitengatik minduta. Zer gertatzen zitzaion galdetu nion, baina ez zela ezer gertatzen esan zidan. Oso hotz portatu zen nirekin eta horrek harritu egin

ninduen. Nerea ez zen horrelakoa eta arazo bat bazenuen, laguntzen saiatzen zen. Oso triste geratu nintzen, ez bainekien zer gertatzen zitzaion nirekin. Baina beste alde batetik, pozez txoratzen nengoen Eneko han baitzegoen. Bere argazkia begiratzen nuen bakoitzean oso pozik jartzen nintzen, eskuak dardarka hasten ziren, eta aurpegian irribarrea agertzen zitzaidan. Bere gutun bat heltzen zen bakoitzean poz-pozik jartzen nintzen, eta behin eta berriro irakurtzen nuen... Bere gutunak irakurtzen nituenean hodei batean nengoen, ametsetan bezala. Hura amets bat zen!

Asteazkena zen eta ikastolatik heltzean aurkitu nuen espero nuena. Enekoren gutuna zen, mahai gainean. Azkar-azkar zabaldu nuen. Bere gutun bat zabaltzen nuen bakoitzean bihotza irten egingo zela nabaritzen nuen... Bere argazki batzuk bidaltzen zizkidan. Aiiii!!! Ze ondo agertzen zen argazkietan... Baina gutuna izan zen gehien harritu ninduen, zeren niretzako gauza oso garrantzitsu bat zioen. Honela zen:

Kaixo Ane:

Uste dut denbora asko daramagula gutunak elkarri bidaltzen eta asko gustatzen zait, gero eta gehiago. Zure argazkiak ditut, zu ezagutzen zaitut, eta oso pozik jartzen naiz zure gutunak jasotzean. Horregatik uste dut ondo egongo zela geratzea eta hitz egitea gehiago ezagutzeko, zu ikusteko gogo handia baitut. Zer diozu? Niri asko gustatuko litzaidake geratzea, baina zuk ez baduzu nahi lasai. Zure gutuna jasotzean jakingo dut erantzuna.

PO: Gustatzen zaizkizu bidalitako argazkiak? Zuk ere bidali, mesedez, asko gustatzen zaizkit zure argazkiak...

1.000000.000.000.000.000 MUSU

Eneko

Eseri egin behar izan nintzen. Enekok geratzeko proposatu zidan. Bizitzan emandako berririk ikaragarriena zen. Hain gustuko nuen mutil horrek geratzeko esan zidan, lagun bezala noski, gehiago ezagutzeko...

Badaezpada ere, ez nion Nereari ezer esan, ze, Enekorena kontatu nionetik, nigandik urruntzen saiatzen zela nabaritzen bainuen. Horregatik apur bat txarto nengoen, baina berdin zitzaidan. Enekorengatik txora-txora nengoen, eta horrek ahaztarazi egiten zidan dena.

Nik, noski, erantzun egin nion nik ere geratu nahi nuela esanez. Hain pozik nengoen... Lekua eta ordua adostu genituen. Irrikan nengoen eguna heltzeko, egunero-egunero zenbat egun falta ziren kontatzen nuen, eta azkenean heldu zen eguna.

Ekainak 20, arratsaldeko seiak. Gogoratu nintzen oso gutxi geratzen zela urte bat betetzeko gutunak bidaltzeari hasi genionetik. Banengoen esandako lekuan, gainera egun horretan eguzkiak oso gogor jotzen zuen eta ez zen oso argi ikusten.

Ni nire jantzi politenekin jantzi nintzen eta ordu erdi egon nintzen komunean orrazten. Kontua da Eneko etorriko zela, nirekin geratu baitzen...

Urrunetik ikusi nuen mutil bat: altua, ile horia, kamiseta zuri motz bat zeraman eta praka bakeroak. Eneko zen! Niregana zetorrela ikusi nuen, orduan ni ere berarengana hurbiltzen joan nintzen. Errealitatean argazkietan baino askoz guapoagoa zen. Pelikula bateko protagonista ematen zuen... Biok elkarri begira

geratu ginen segundo pare batez, ezer esan gabe. Bera hasi zen:

-Kaixo... Ane zara?

-Bai... Eneko, ezta?

Musu eman zidan masailean... Musu horrek arnasarik gabe utzi zidan. Hitz egiten hasi ginen, eta lotsa galtzen joan ginen. Horrela, orduak azkar-azkar pasatu zitzaizkigun. Bederatzi t'erdiak ziren. Joan egin behar izan nuen etxean hamarretarako egoteko. Bizitzan pasatutako arratsalderik politena izan zen. Bi musu emanez agurtu ginen. Beste egun batean geratzeko hitz egin genuen, eta hala izan zen. Ekainaren 25ean, leku eta ordu berberean.

Azkenean egun hura heldu zen. Ekainaren 25eko arratsaldeko seietan "Azken kaleko" parkean. Egun horretan ez nengoen bestean bezain urduri. Heldu nintzenean bazegoen Eneko eta niregana hurbildu zen. Beste egunean bezala, hitz egiten hasi ginen. Baina ez zen berdina: biok geunden maiteminduta. Hasieran pentsatzen nuen berak lagun bat bezala hartzen ninduela, lagun on bat bezala, baina konprobatu nuen berak ere berdina sentitzen zuela hitz egiten geundela, begietara begiratu eta, sekulako musua eman zidanean. Ez dut inoiz ahaztuko musu hori eta momentu hartan sentitu nuena ere ez. Dena izango zen perfektua, momentu hartan gertatu zena gertatu izan ez balitz: Eneko eta ni bertan geundela, Nerea agertu zen. Momentu hartan Enekorekin batera handik desagertzea izan zen nire desiorik handiena, baina ezin izan zen horrela izan. Nerea Enekorengana zuzendu zen erdi negarrez eta hauxe esan zion:

-Eneko, ez nuen hau espero zugandik... Tonto hutsa izan naiz... Nola sinetsi nizun?

-Zer?... Zer diozu?... Eneko oso urduri zegoen. Ez zitzaizkion hitzak ateratzen. Nik, ordea, ez nuen ezer ulertzen.

-Azalduko didazue zer gertatzen den? -esan nuen nik apur bat haserre.

Momentu horretan, Nerea korrika joan zen, negar batean, ezer esan gabe. Ez nekien zer gertatzen zen. Nereari deitu nahi izan nion, baina ezin izan nuen. Ez nintzen kapaz sentitu. Baina banuen Eneko aurrean, eta galdetu egin nion:

-Eneko... Zer gertatu da? Azalduko didazu?... Ez dut ezer ulertzen...

-Begira... oso berandu egin zait. Bihar geratzen bagara, azalduko dizut. Zer iruditzen zaizu?

-Ondo da. Orduan bihar arte. Leku eta ordu berean.

Pentsatzen joan nintzen. Alde batetik, oso maiteminduta nengoen Enekoz: horrelako mutilak ez zeuden leku guztietan. Neska batek gustuko dituen ezaugarri guztiak zituen: guapoa zen, oso majoa... Baina, beste alde batetik, Nerea zegoen. Nire lagun mina zen eta ez nuen ulertzen zer gertatzen zen. Edo hobeto esanda zer gertatzen zitzaion Eneko eta nirekin. Hainbat gauza etorri zitzaizkidan burura. Izan zitekeen Nerea eta Eneko udan elkarrekin egon izana, baina aukera hori laster joan zitzaidan burutik. Hasteko, Nereak kontatu egingo zidalako, eta gainera Enekok gutun batean esan zidalako ez zuela neska-lagunik. Baina ez nekien nori sinistu.

Hurrengo egunean, Nerea aurkitu nuen. Agurtu egin nuen, baina pentsatu nuen horrela ez zidala kasu handirik egingo, eta berarengana hurbildu nintzen.

-Nerea... zera... esango didazu zer gertatzen zaizun? Mesedez... Nik ez dakit ezer, azaltzea gustatuko litzaidake.

-Dena da Enekoren errua. -esan zidan negarrez- Begira, igo zaitez nire etxera eta bertan azalduko dizut lasaiago.

Bere etxera igo nintzen. Kontatu zidana ez nuen espero. Nik entzun ez nuena nahi, kontatu zidan. Bera udan Enekorekin egon zela eta suposatzen zela elkarrekin jarraitzen zutela esan zidan. Nereak esan zidan Enekok esan ziola geratuko zirela, eta ikusten jarraituko zutela. Baina jada Enekok ez zituen Nerearen deiak erantzuten, ezta bere e-mail eta sms-ak ere ez (hau da Nereak esandakoa).

Orduan ulertu nuen dena. Horregatik nik Nereari Enekorena kontatzen nion bakoitzean haserretzen zen hainbeste. Baina oraindik ulertzen ez nuen gauza bat geratzen zen.

-Eta orduan zergatik ez zenidan Enekori buruz ezer kontatu? Zergatik?

-Enekoz agurtu nintzenetik, ez naiz berarekin ikusi ezta hitz egin ere ez. Esan dizudan bezala, ni saiatu saiatzen nintzen, baina berak ez zidan kasurik egiten. Ni oso maiteminduta nengoen baina, ikusten dudanez, bera nitaz oso azkar ahaztu zen.

Amorru handia sentitu nuen kontatu zidanean. Nola maitemindu nintzen ni horrelako mutil batez? Nereaz agurtu nintzen eta esan nion arratsaldean Enekorekin geratu nintzela. Nahi nuena egiteko esan zidan, baina nik oso argi neukan Enekori oso argi utziko nizkiola gauzak, hau ez zela horrela geratuko.

Ordua heldu zen, eta plazarantz joan nintzen. Eneko bazegoen itxaroten. Oso haserre nengoen. Munduko mutilik memeloena zen baina oraindik berarekin txoratuta nengoen. Berak hitz egin aurretik, nik kendu nion hitza.

-Begira, ez dut azalpenik behar. Nereak dena kontatu dit. Hartu dut erabakia.

Gorroto zaitut! Nola portatu ahal izan zara hain txarto? Zergatik? Ez nuen zugandik hau espero.

-Entzudazu, mesedez. Nik uste dut ez dizula den-dena kontatu. Begira, nik ez dakit berak zer kontatu dizun, baina gurea ez zen harreman serioa. Udan ezagutu ginen, eta irteten hasi ginen. Nik asko maite nuen baina utzi egin genuen; hobeto esanda, berak utzi ninduen. Esan zidan harreman honek ez zuela iraungo neguan eta ikusiko ginela, bai, baina lagun bezala. Ni oso txarto geratu nintzen, eta ez nuen bera gogoratu nahi. Bere deiak eta e-mailak jasotzen nituen baina ez nuen ezer jakin nahi.

-Imajinario handia daukazu, bazenekien? Uste dut nahikoa dela. Zergatik ez duzu egia esaten eta ez dituzu ipuinak uzten? Hori esan eta amorruez jota joan egin nintzen. Oso triste nengoen, eta maiteminduta, oso, baina Nerea zegoen hor, eta ezin nion hutsik egin.

Hurrengo egunean Nereak bere etxera gonbidatu ninduen. Nik, noski, gonbidapena onartu egin nuen eta horrela Enekorena kontatzeko aprobetxatuko nuen. Bere logelara igo nintzen baina, agurtu eta berehala, bere amak errekadu bat egiteko deitu zion. Bakarrik geratu nintzen logelan eta apaleko liburu batzuk begiratzen hasi nintzen. Ni oso traketsa naizenez, nahi gabe liburu guztiak erori zitzaizkidan, baita egunerokoa ere. Zabalik zegoen, eta ezin izan nion irakurtzeko gogoari eutsi. Harrituta geratu nintzen irakurri ostean. Honela zioen:

2000ko abuztuaren 25a

Gaur Eneko utzi dut. Dirudienez, bera nitaz oso maiteminduta zegoen eta,

bera oso triste ez geratzeko, ez zuela iraungo esan diot. Hara, ze tontoa!!

Je, je... Pena apur bat eman dit baina, berdin zait, laster ahaztuko zait... Norbaiti emango diot beraren helbidea, ea bera ere laster ahazten den. Kokoteraino nago berarekin. Nik ez nuen ezer serioa nahi eta begira bera zelan geratu den nik utzi dudanean.

Nerea

Orain bai sentitzen nuen amorrua!!! Nire lagun minak aurpegian esan zidan gezurra, eta nik, tonto bat bezala, sinetsi eta Eneko utzi nuen. Oso txarto portatu zen nirekin Nerea, eta oso argi utziko nion. Momentu horretan heldu zen Nerea. Azalpenik eman gabe joan nintzen, haserre bizian.

Arratsalde horretan bertan, Enekorekin geratu nintzen, eta barkamena eskatu nion. Berari sinetsiko niola hitz eman nion, eta horrela, lehenengo egunean bezain maiteminduta gaude.

Ume baten istorioa

Gorka López Arantzamendi
Gabriel Aresti B.H.I., 1. maila

Nire istorioa Afrikako kostaldean hasten da, nik bost urte nituenean. Ama, aita eta hirurok behartsuak ginen eta horrexegatik, gazteleraz hitz egiten bagenekienez, Espainiara joatea erabaki genuen.

1995eko urtarrilaren hamaseian beste hogeita hamar bat pertsonarekin txalupa txiki-txiki batean sartu eta itsasoratu ginen.

Egunak eta egunak igaro genituen txalupan. Amak sehaskako kankak abesten zizkidan. Horrela, nahiz eta itsaso arriskutsuaren erdian txalupatxo batean egon, ni seguruago sentitzen nintzen. Aitak, berriz, iritsitakoan egingo genituen gauzez hitz egiten zidan. Bere ustez, izozki denda bat zabaldurik aberatsak egingo ginateke.

Goiz ilun baten esnatu nintzen. Zeruan hodeiak ziren nagusi. Tximistak hasi zirenean, ni beldurtu egin nintzen eta amak manta baten azpian ezkutatu ninduen. Ekaitzak harrapatu gintuen. Mantatik irten nintzenerako, ama eta beste lau pertsona bertan galdu ziren eta aita hiru egun geroago hil zen gosearengatik.

Bost egun pasa ondoren iritsi ginen, baina ekaitzarengatik ez Kanariar Irletara baizik eta Ondarroara. Gauetz iritsi ginenez, ez gintuzten ikusi eta ni autobus

geltokira joan nintzen eta aulki baten behealdean ezkutatu nintzen euria zegoelako.

Goizean herrirantz abiatu nintzen. Jendeari entzuten niona ez zen gaztelera. Honelako gauzak esaten zituzten: “Zelan zaz?” “Ondo, eta zeu?”.

Ni arraro sentitzen nintzen, eta bat batean ertzain bat agertu zen. Emakumeak haxe galdetu zidan:

-Bakarrik zaz?

-Yo no entender.

-la ba, estas solo? -oraingoan

-Si, si lo estoy.

Ertzainak komisaldegira lagundu zidan eta han utzi ninduen ea norbait nire bila zetorren.



Azkenean konturatu nintzen zer ari zen gertatzen.

-Yo no tener padres.

-A no! -ertzainak.

Emakume hark Miren zuen izena eta bere etxera eraman ninduen. Han jana eta edana eman zidan. Ordu bietan bere senarra iritsi zen eta oso atsegina zen. Haien etxean gelditu nintzen lo egiten.

Hurrengo egunean, umezurtegiara eraman ninduten. Han ez nuen haiengandik banandu nahi, baina ezin izan nuen ezer egin. Hori zen nire etxe berria.

Goizetan, 9etan gosalduta eta 10etan eskolan sartzen ginen. Han bazkaltzen genuen eta arratsaldea etxerako lanak egiten igarotzen nuen. Ezin genuen (nik eta beste umezurtz edo lagatakoak) bainua hartzerakoan 30 bat cm baino gehiago bete umezurtzegiak ez baitzuen diru askorik. Ohera gaueko 9etan joaten ginen lo egiteko.

Egun batean telefonoak jo zuen. Miren zen. Ordurako euskera ondo menperatzen nuen.

-Kaixo Miren, nola zaude?

-Hara, hara... Askok hobetu duzu zure euskera.

-Bai, bai. Zer nahi duzu?

-Pentsatzen egon gara, Mikel (gizona) eta biok eta... Nahi al duzu gurekin bizi, hau da guk zu adoptatzea?

-Bai, bai noski.

-Gaur paperak sinatuko ditugu eta bihar gurekin biziko zara.

Berrituen gurasoak!!!

Gaur egun Ondarroan bizi naiz, instituturara noa eta Miren eta Mikelekin, gurasoekin, bizi naiz.

Beste bat familian

Olatz Asua Moragues
Miguel de Unamuno B.H.I., 2. maila

Kaixo. Amaia dut izena eta 14 urteko neska gazte bat naiz. Animaliak asko gustatzen zaizkit baina horiek baino askoz gehiago umeak eta txikiak badira askoz hobeto, maitagarriagoak direlako.

Duela hiru urte gure etxean sei ginen, gurasoak, nire neba, Mikel, eta biok eta, nola ez! zakur bat eta untxi bat. Hala ere, orduan benetan nahi nuena ahizpa txiki bat gure artean izatea zen. Arazoa zen nire gurasoak nahiko nagusiak zirela eta banekien ezinezkoa izango zela.

Urte horretako udan ez genekien nora joan oportretan eta gurasoek ez ziguten azken momentu arte ezer esan.

-Prestatu al dituzue maletak? -esan zigun amak egun batean.

-Ez. Nora joango gara, ba?

-Txinako hiri handi batera. Zergatik galdetzen duzue?

-Ez genekielako, ama -esan zuen Mikelek.

Beno, azkenean maletak prestatu eta Txinako hiri handi horretara joan behar izan genuen. Hegazkina hartu eta, egun osoko bidaia egin ostean, han geunden, Txinan. Hasieran, nire neba eta biok nahiko aspertuta geunden baina egun batzuk igaro eta gero, oso ondo pasatzen ari ginela konturatu ginen eta ez genuen

Txinatik atera nahi. Han denetarik ikusi genuen: museoak, zooak, hiriak, herri txikiak, A! hiri handi horrek Shangai du izena eta oso handia eta polita iruditu zitzaidan.

-Ama zenbat egun egongo gara hemen? -galdetu nion nik.

-Ez dakit baina aste bate barru, beharbada, etxera itzuliko gara -erantzun zidan amak, barrezka.

Bi egun falta ziren etxera joateko. Mikelek eta biok ez genuen etxera itzuli nahi eta zerbait asmatu behar genuen etxera ez bueltatzeko. Egun osoa pentsatzen pasatu ondoren, ez zitzaigun ezer bururatzen. Horretan geundela, aita eta ama hurbildu zitzaizkigun.

-Zerbait esan behar diguzue? -galdetu zuen gure amak.

-Ezer ere ez ama, zer esango dizuegu, ba? -erantzun zion Mikelek.

-Ez dakit baina oso urduri somatzen zaituztet. Zer lortu nahi duzue? -esan zigun gure aitak.

-Beno, kontatuko dizuegu -esan nuen nik.

-Ba, oso gustura gaudela hemen eta ez dugula hemendik joan nahi. -jarraitu zuen Mikelek.

Orduan aitak eta amak elkarri begiratu zioten.

-Ba ... , beharbada, beste bi aste luzatuko ditugu oporrak -esan zuen aitak

-Ederto! -oihukatu genuen biok elkarrekin.



-Aita eta bioi ideia bat darabilkigu buruan eta erabaki baino lehen zuen iritzia entzun nahi dugu -esan zuen gure amak.

-Hemengo ume txiki bat adoptatzea pentsatzen ari gara -bota zuen aitak.

-Ba niri ideia bikaina iruditzen zait. Ados nago -esan zuen Mikelek.

-Niri ere bai! -esan nien nik eta musu bana eman nien.

Gau horretan ezin izan nuen lorik egin. Gau osoa ea lortuko genuen eta nolakoa izango zen pentsatzen eman nuen. Hurrengo egunean, aita eta ama umea adoptatzeko behar den guztiaz informatzera joan ziren eta gauean, bueltatzean, nire amak oso aurpegi arraroa ipini zuen. Hasieran, ezetza emango zigutela pentsatu nuen, baina gero konturatu nintzen aurpegi hori gu izutzeko bakarrik ipini zuela.

-Bai, ahizpatxoa izango duzu, Amaia. Eta zuk, Mikel, arrebatxoa. Zer iruditzen zaizue? -galdetu zigun amak.

-Oso ondo! Eta noiz joango gara ume txikia ikustera?

-Ez dakigu. Bihar zelan? -erantzun zigun aitak.

-Primeran!!!! !

Hasieran ezin izan nuen sinetsi baina gero konturatu nintzen dena benetan gertatzen ari zela eta ahizpa txikitxo bat edukiko genuela. Goiz eta gau osoa pasatu nuen pentsatzen ea zer izango zen ume txiki bat izatea etxean: berarekin egun osoan borrokan, denbora osoan gauzak kentzen, bera ni jotzen...

Hurrengo egunean ahizpa txikia ikusi genuen. Oso polita zen. Neska txiki-txikia zen, 9 hilabete zituen eta Li Shu deitzen zen. Gu ikusi bezain laster, irribarrez agurtu gintuen. Egunero joaten ginen Lila ikustera eta, azkenean, paperak eman zizkiguten eta etxera bueltatu ginen!

Hasieran, etxean, inbidia handia sentitzen genuen baina gero gutxika-gutxika hasieran geneukan inbidia gaintitzen hasi ginen, nahiz eta oraindik pixka bat sentitu noizean behin.

Gauza bat ez zitzaigun gustatzen: Li Shuk nahi zituen gauza guztiak lortzen zituen, baina guk, berriz, ez. Askotan haserretzen ginen berarekin eta horregatik ama eta aita gurekin askotan haserretzen ziren. Denbora pasa ahala gero eta hobeto moldatzen ari ginen gure ahizpa txikiarekin, Li Shurekin.

Etorri eta egun batzuetara, gure familiako guztiek ezagutu ahal izateko oso afari ederra egin genuen Li Shuren omenez. Eta Li Shuri denetarik oparitu zioten: panpinak, arropa, jostailuak... Denok ikusten genuen gure ahizpa Lila oso pozik eta horrek gu asko alaitzen gintuen.

Etxeko guztiok poz-pozik gaude beste pertsona bat familiara etorri delako.

Urtero-urtero egun hori heltzen denean gertatutako guztia kontatzen diogu eta berak urtero galdera berdinak egiten dizkigu: eta noiz?, zergatik?, nola?, eta ni non nengoen?, noiz joango gara Txina ikustera? eta horrelako galdera mordoak. Eta nola ez, guk oso pozik erantzuten diogu.

Aurten bere urtebetetze egunean honela esan digu:

-Ni nagusia naizenean, Txinara joango naiz ume txiki bat adoptatzeko eta Li Shu izena ipiniko diot. Horixe baietz!

Eta aitak, amak, Mikelek eta laurok Li Shu besarkatu eta oso zoriontsu sentitzen gara.

**DERRIGORREZKO
BIGARREN HEZKUNTZA**
(3-4.mailak)



Gaixorik al nago?

Lys Madrazo Mediavilla
Ignacio Ellacuria ikastetxea, 4. maila

Oso ondo gogoratzen dut Olaia ezagutu nuen lehenengo eguna. Orain dela lau urte ezagutu genuen elkar, trenean, Bilborako bidean. Egun horretatik aurrera nire bihotza Olaiarena da. Ez dut inoiz ahaztuko nire sentimendu gordeenak, barnean hainbat denbora izandakoak, lehenengo aldiz kanporatu nituen eguna. Han geunden, Olaia eta biok, guraso eta ahizpari eman behar genien berriaren zain. Aurre egin beharra zegoen eta oraindik ere ez dakit nola hasi nintzen berbetan. Libre sentitu nintzen Olaiarengan sentitzen nuen maitasuna adieraztean. Pauso garrantzitsu hori eman ondoren, nire etxeko giroa eta egoera guztiz aldatu zen. Aitak ez zidan hitzik ere zuzentzen eta ama, berarengana hurbiltzen nintzen bakoitzean, niregandik ezkutatzen zen, gaixotasun kutsakorra izango banu bezala. Momentu hartan, nire ahizpa Mirenek emandako laguntzari esker aurrera jarraitzeko indarrak hartu nituen. Amak lasai egoteko esaten zidan, laster mediku on bat aurkituko zuela esanez. Baina... ba al nengoen ni gaixorik maitatzeko beste era bat izateagatik? Edo haiek ziren gaixoak? Horixe galdetzen nion egunero neure buruari. Nik argi neukan beste edozein pertsona bezalakoa nintzela.

Gurasoek, homosexuala nintzela aitortu eta bi astera, zoroetxe batean sartu ninduten. Haiek ez zuten ulertzen nire maitatzeko era eta zoratuta nengoela

pentsatzen zuten. Imajina ezazue: hamasei urterekin ikasketak utzi behar izan nituen eta ezin nituen lagunak ikusi, bakarrik Olaia, eta astean behin. Askotan etortzen ziren nire gurasoak bisitan, baina ez zuen ezertarako balio, nik ez bainien kasurik egiten. Olaia eta Miren etortzen ziren ostiral bakoitzean, indarrak hartzen nituen aurrera jarraitzeko eta ahalik eta lasterren leku ziztrin hartatik ateratzeko.

Egun guztiak berdinak ziren "etxe" hartan. Goizero, psikologoaren kontsultara joaten ginen banaka eta arratsaldero ekintza berdinak egiten genituen. Gainera, ume txikientzako jolasekin jolasten genuen tontoak bagina bezala. Oso txarto pasatu nituen bertan igarotako bi urteak baina azkenean handik ondo ateratzea lortu nuen.

Apirilaren bosta, asteazkena, nire urtebetetze eguna zen eta espero ez nuen gauzarik ederrena gertatu zitzaidan. Egunero bezala, hamar t'erdietan Josu psikologoaren kontsultara sartu nintzen. Josurekin oso harreman ona neukan eta buruan neukan guztia esaten nion, nahiz eta berak nire "arazoa" oso ondo ulertu. Kontsultara sartu bezain laster, negarrez hasi nintzen Olaiaren deirik jaso ez nuelako; baina bat-batean, ahots ezagun bat entzun nuen, "zu ni baino gogorragoa zara" esanez. Burua altxatu nuen poliki-poliki eta... Olaia zen. Nire bila zetorren. Hamazortzi urte nituen jadanik eta ni leku ziztrin hartatik ateratzera joan zen.



Gaur hogeitun urte ditut eta oraindik ez dut ulertu orain dela lau urte hasi eta gaur amaitutako bidaia luze eta gogorra. Pixkanaka-pixkanaka, nire gurasoak maitatzeko beste modu batzuk ulertzen saiatzen dira eta gure harremana zeharo aldatu da leku ezberdinetan bizi arren. Olaia eta biok gure etxe propioa erosi ahal izan dugu, gogor lan egin ondoren. Ez da oso etxe handia eta ez du bista handirik baina elkarrekin eta inoren eragozpenik gabe bizitzea lortu dugu behingoz !!

Lau urteotan egindako ahaleginen ondorioz eta, jakina, elkar maite dugulako eta lagunei esker izan da dena. Hala ere, egungo gizarteak oraindik ez ditu besteen eskubideak behar bezala errespetatzen eta guztion laguntzaz lortu behar dugu!!!

Etorkizun baten bila

José Javier Val Mejuto
Ignacio Ellacuria ikastetxea, 3. maila

Ni Kongon bizi nintzen nire guraso eta bi anaiekin. Oso pozik bizi nintzen bertan. Goizean, nire lagunekin ateratzen nintzen oihaneko animaliak behatzera eta arratsaldean korrika egitera ateratzen nintzen. Aita herriko medikuaren laguntzailea zen eta, bitartean, ama nire anai txikiez arduratzen zen. Aitak ez zuen diru asko irabazten baina gauza garrantzitsuenak erosteko heltzen zitzaigun. Arratsalde batzuetan, euria egiten zuten egunetan, aitak medikuarekin ikasitako gauza gehienak irakasten zizkidan. Oso gustura nengoen bertan.

Egun batean, beste egunetan bezala korrika egin ondoren, etxera bueltatu nintzen. Oso pozik nengoen gero eta azkarrago egiten nuelako eguneroko ibilbidea. Etxeko atea zabaldu nuenean, poz osoa pikutara joan zen. Gela ilunpean



zegoen eta izkina baten ama negarrez. Bakarrik zegoen. Aita eta bere anaiak ur bila joanak ziren.

-Zer gertatzen da? Zergatik zaude negarrez? -galdetu nion.

Berak esan zidan aita oso txarto zegoela eta ez zuela egun asko iraungo. Tratamenduak diru asko balio zuen eta guk ez geneukan horrenbeste diru tratamendu hori erosteko. Ezin nuen aita hiltzen utzi.

Hurrengo egunean erabaki nuen. Europara joango nintzen bertan lan egiteko eta lortutako dirua etxera bidaliko nuen aitaren tratamenduak ordaintzeko. Banekien eginkizun hori arriskutsua zela baina ezin nuen beste gauzarik egin. Entzunda neukan hirian bizi zen gizon batek nahi zuten lagunak Europara eramaten zituela diru kopuru txiki baten truke. Aurreztuta neukan diru guztia hartu, familia agurtu eta hirira abiatu nintzen atzera begiratu gabe.

Ordu oso bat eman nuen hirira heldu arte. Bertan, gizon horrekin hitz egin nuen. Bera talde bat sortzen ari zen gau horretan bertan ateratzeko eta bakarrik falta zitzaion gizon bat. Ea prest nengoen gau horretan joateko galdetu zidan eta nik baietz erantzun nion. 12etan hiriko plazan egoteko esan, ordaindu eta bertatik joan nintzen. Banku batean jesarri nintzen eta atzean utzitako guztiaz oroitzen hasi nintzen: familia, lagunak, etxea, oihana...

Konturatu nintzenean plazara joateko ordua heldu zen. Plazara abiatu nintzen eta heltzerakoan beste pertsona batekin topo egin nuen: Mohamed Adalougi. Bera, beste zenbait pertsona bezala, bizitza hobeagoaren bila joan zen. Biontzat lehenengo aldia zenez, elkarri laguntzen genion. Ordua heldu zen. Plazara jeep bat ailegatu zen eta atzeko partean igotzeko esan zigun. Guztiok bertan sartu ginen. Atzeko aldean zegoen lekua oso eskasa zen baina, uzurtu ondoren, guztiok sartu ginen. Hain txikia zenez, ezin zen ezta arnasarik hartu ere. Gainera gidariak emandako tratua ez zen ona. Arrazoirik gabe haserretzen ziren gurekin eta etengabe iraintzen ziguten. Nik amore emateko gogoa nuen baina nire aitarengan pentsatzeak indarra ematen zidan.

Gau batean, denak lo zeuden bitartean, autoa gelditu egin zen, gidariak jaitsi egin ziren eta heldu ginela esan ziguten. Egia esan, beste etorkin batzuei itxaroten ari ginen. Zuhaixa batzuen atzean ezkutatu ginen. Gidariak ur bidoi batzuk eta sardina lata batzuk utzi zizkiguten. Beraiek 2 egunean behin etortzen ziren sardina latekin baina gau batean ez ziren etorri. 10 egun pasa ondoren, bertan behera utzi gintuztela pentsatzen hasiak ginenean, gidariak bueltatu egin ziren. Automobilaren atzealdean 10 etorkin gehiago zetozen. Horrez gain, gutxi gorabehera 6 metroko patera bat zekarten. Guztiok poz-pez jarri ginen. Baina pozak denbora gutxi iraun zuen: patera amaitu gabe zegoen. Bazekarten bukatzeko material nahiko eskasa baina zuloak betetzeko nahiko izan zen. Konpontzea amaitu zutenean, gaua zen eta, denok oso nekatuak geundenez, lo seko geratu ginen. Goizaldean motoreak eta gasolina ekarri zuten. Ea motoreak bazebilen frogatu zuten. Motorea egoera onean zegoen. Paterari motoreak gehitu eta Kanariar Uharteetara jotzeko prestatu ziren. Nik, besteek bezala, nire ondasun guztiak bildu nituen plastiko batean. Aurpegi guztietan irribarrea margotua zegoen. Arratsaldean, hiru auto etorri ziren: bata patera garraiatzeko eta besteak etorkin guztiak garraiatzeko. Gidari batek isilik egoteko gomendatzen zigun itsasoan zeuden patruilak ez

antzemateko. Azken azalpenak eman ondoren, itsaso aldera abiatu ginen. 6 ordutan ibili ondoren, patera uretara bota eta barrura sartu ginen. Egia esan inork ez genekien nabigatzen. Gaua heltzen ari zen eta gauarekin batera olatu oso indartsuak etorri ziren. Halako batean, itsasontzia irauli egin zen. Denok saiatu ginen patera ondo jartzen, baina ezinezkoa zen. Bi gizon ito egin ziren. Haietako baten anaia negarrez zegoen. Lagunek elkarri deitzen zioten. Handik bizirik aterako ginela pentsatzeak indarra ematen zidan. Eta orduan Espainiako patruila batek aurkitu gintuen. Mohamed eta biok izan ezik, beste guztiak harrapatu zituzten. Gu pateraren azpian geratu ginen eta haiek joaterakoan bertatik atera ginen. Kristoren hotza geneukan. Itsasontzia ondo jartzen saiatzen ginen eta, zenbait alditan saiatu eta gero, azkenean lortu genuen. Baina, zoritxarrez, motorea ere puskatuta zegoen. Momentu hartan bi aukera geneukan: Afrikara bueltatzea edo Kanariar uharteetaraino bidea jarraitzea. Orduan gure familiaz oroitu ginen eta aurrera jarraitzea erabaki genuen. Eskuez arraun egin genuen eta, 15 egunetan gose pasa eta itsasoko ura edan eta gero, azkenean gure helburua lortu genuen. Fuerteventurako irltara ailegatu ginen. Oso pozik geunden.

Gau hori hondartzatik hurbil zegoen kobazulo batean ematea erabaki genuen. Hurrengo goizean, landetara abiatu ginen lan baten bila. Inork ez zigun lanik eman nahi arazoetan sartu ahal zirelako. Itxaropena ia galduta geneukanean, gizon batek bere platano soroetan lana eskaini zigun. Guk poz pozik onartu genuen. Ez zuen dirutza handirik ordaintzen baina ezer ere ez baino hobe zen. Nik ahal nuenean, nire familiari bidaltzen nion dirua.

Egun batean, soroan nengoela, gutun bat jaso nuen. Nire familiak idatzitakoa zen eta honela esaten zuen:

Eskerrik asko!!!

Aita ondo jarri da.

Zugatik izan ez balitz, ez dakit zer gertatuko zen. Zuk bidalitako diruari esker, aitak behar zuen tratamendua ordaindu dugu.

Eta zu zer moduz zaude?

Espero dut ondo egotea.

Hemen zu berriz ikusteko irrikatan gaude.


Anaiek ere Espainiara joan nahi dute zu ikustera.

Besarkada handi bat.

Zure familia.

Oso pozik nengoen.

Begietan malkoak nituela, kontatu nion berri ona nire lagunari.



BILATZAILEA

Pablo Hernández Becerro
Berrio-Otxoa, 3. maila



Iraila amaitzen doa. Urtero gertatzen den bezala, zuhaitzek bere kolore berdea galtzen dute eta paisaian horia da protagonista. Bertako landek alfonbra marroi bat ematen dute, paisaiari itxura berezia ematen.

Zuhaizpe guztietan hainbat perretxiko hazten dira, ibiltarien gozamenerako. Baina mirestuta geratuko zinateke, gauza guzti hauek egunsentiaren xarmarekin ikusiko bazenitu. Eguzki-izpiek, beren kolore bereziarekin, daukaten magia leku guztietara eramaten dute. Bertako landak garoaren distirarekin itsutzen gaitu bertatik pasatzean. Baina gauzarik ederrena erditik pasatzen den ibai gardena da. Urak, menditik jaistean egiten duen zurrumurrua, idatzita dagoen sinfoniarik ederrena dela dirudi. Eta gauza horiek guztiak txorien doinuez lagunduta: ederrena urretxindorrarena, baina ezin ahaztu, ez kardantxilorena, ezta txirritxo ere. Hau guztia ikusita, Edeneko lorategian zaudela esango zenuke. Baina ez, erreala da.



Orain dela gutxi, gure protagonista ibaiaren erdian dagoen harri batetik esandako guztia ikusten ari zen. Gizon horren aurpegiak, gazte eta ederra, adimena eta jakingura erakusten zuen. Momentu horretan, bere barneko sentimenduak aztertzen ari zen, askotan egiten zuen bezala. Batzuek arrarotzat hartzen zuten, zeren gaur egungo munduan inork ez baitu ezer pentsatzen. Gure bizitzan egiten dugun bakarra lan egitea da, eta bizitzatik probetxua atera nahi dugunean zaharregiak gara. Baina egun hura desberdina zen; berak ez zeukan batere argi aztertzen ari zena. Paradisu horren erdian, bolaluma bat eta orri batzuk hartuta, aipatutako guztia idazten hasi zen. Nahiz eta asko pentsatu, ez zekien zertarako zegoen munduan; eta argi zeukan bertan, harri baten gainean eserita ez zuela aurkituko. Baina non aurkituko zuen? Bere bizitzan hainbat gauza bilatu zituen, liburuetarako informazioa, galduta zegoen zerbait... gehienok bilatu ditugun gauzak; baina bere bizitzaren zentzua, hori handiegia zen. Nahiz eta hainbeste gauza buruan eduki, ez zen kezkatzen eta bere buruari galdera bakarra egin zion: nire bizitza nolakoa izango da?

Ettxera abiatu, lauzpabost egunerako arropa hartu eta ikusi zuen lehen bidetik joan zen. Edozein bide, hori gutxien larritzen zuena zen. Baina zuk, irakurle, zertarako hartu zuen bidea galdetuko duzu; eta erantzuna espero duzuna baino errazagoa da: bilatzeko. Berak nahi zuen bakarra horixe zen, bilatzea. Eta helburu bakar horrekin bere bidaia hasi zen. Berak ez zeukan ez jomugarik ezta ibilbiderik ere; bere oinak joaten ziren lekuetara joaten zen. Beti bere pentsamenduan sartuta, nahiz eta edozein pertsona ikusten zuenean beraiekin gustura hitz egin. Normalean, landako gunetik zihoanez, batez ere jende zaharrarekin topatzen zen. Mirestuta geratzen zen beraien kontuekin, oso harrigarriak zirelako. Lagun batzuek beren etxeetara gonbidatzen zuten eta bere bizitza osoa kontatzen zioten. Denek gozatzen zuten: gure bilatzailea, bere bilaketaren atal bat zelako, eta istorio kontalaria, gehienetan bakar-bakarrik zegoelako.

Egunak pasatu ziren eta egunak aste bilakatu ziren; eta aste horiek, azkenean, hilabeteak izan ziren. Batzuetan, gure gaztearen tentua jaisten zen, baina ez zeukan akitzeko asmorik. Nahi zuen bakarra bere bizitzaren zentzua bilatzea zen.

Egun batean, aurreuste bati jarraituta, bide nagusia albo batera utzi zuen eta borda zahar batera ailegatu zen. Borda eraisteko moduan zegoen, eta bertan ez zela inor egongo pentsatu zuen. Baina sartzean agure batekin topatu zen. Gizon horren aurpegia zimurrez beteta zegoen, eta hain ziren sakonak ze bakoitzak gudaren orbain bat zela zirudien. Yogako ariketa bat egiten ari zen zalutasun handiarekin. Gazteak ahoa barkamena eskatzeko zabaldu zuenean, agureak isiltzeko keinua egin zuen eta geroxeago esan zion:

-Sar zaitez, mutiko -bere ahotsa latza zen baina, bestetik, maitasuna ere adierazten zuen. Altxatu zen eta eskuz egindako bi aulki atera zituen biak esertzeko.

-Eseri hemen, nekatuta egongo baitzara.

-Bai nahiko nekatuta nago. Hemendik oso urrun dagoen hiritik nator. -erantzun zion.



-Eta zertarako egin duzu bidaia luze hau? -galdetu zion zaharrak doinu zuhurgabe batekin.

-Nire bizitzaren zentzuaren bila egin dut bidaia, zer izango naizen bila. Hau esan ondoren gelditu egin zen apur bat eta bere istorioa, bere bidaia, zergatik hasi zuen kontatzen hasi zitzaion: Ni oso galduta nengoen hiri handi batean. Mundu guztiak gauza berdinak egiten zituen. Bizitza osoa lan egiten ematen dute eta gustura bizi ahal direnean beste bizitzara joaten dira. Hori dela eta, nik bilatzailea izatea erabaki dut, nire bizitzaren zentzua aurkitu arte. Baina aspertuta nago. Hilabete asko daramat, jende askorekin hitz egin dut, baina oraindik ez dut ezer garbiro atera.

-Bilatzailea zerbaiten bila ari den pertsona da, ez zerbait aurkitzen duena. Bilatzailea izatea oso bizimodu berezia da. Edonora ailegatzen direnean, ez dute galdetzen nora ailegatu diren. Ez dute presarik bilatzen ari direna aurkitzeko.



Daukatenarekin konformatzen dira eta ez dute ezer gehiagoren beharrik. Primerako gizonak baino ez dira, eta egun arrunt batean lur azpian itzartzen dira. Hau guztia esan ondoren, bere ondoan zegoen botilatik zurrut bat hartu eta hitz egiten jarraitu zuen

-Badakizu zer den bilatzaile bat. Orain nire iritzi apala emango dizut haiei buruz. Baina hobeto uler dezazun parabola baten bidez esango dizut:

“Gizon bat belauniko zegoen
bere etxeko lorategian zerbait bilatzen.

Auzokoak ikusi eta:

-Zer ari zara bilatzen? -galdetu zion
auzokoak gizonari.

-Nire giltzak, galdu ditudalako.

-erantzun zion.

Eta auzokoa laguntzeko belaunikatu
zen.

Denbora bat pasatuta
auzokoak galdetu zion:

-Non galdu dituzu giltzak?

-Etxeko sukaldean.

-Kontxo! Eta zergatik bilatzen ditugu
hemen?

-Argi gehiago dagoelako”


Honekin haxe esan nahi dut:

Zergatik bilatu zure bizitzaren
zentzua bideetan edo beste pertsonengan
zure bihotzaren barnean dagoenean?



Patricia García Sesma
Ignacio Ellacuria B.H.I., 3. maila

Elbarritasun zentrala




ANDREAREN
1. Koadrila

1 961.eko ekainaren 26an Bilboko ospitalean Andrea izenekoa neskato bat jaio zen. Andrea kanpotik beste neska-mutilak bezalakoa zen, baina barrutik guztiz desberdina. Neskatoa gaixotasun batekin jaio zen: elbarritasun zentrala.

Andrea ezin zuen ibili, hitz egin, ezta eskuak mugitu ere, ezkerreko oina izan ezik. Bere familiak hasieran oso txarto pasatu zuen, baina beti egon ziren Andrearen ondoan. Andrea, urteak joan urteak etorri, hitz egiten hasi zen. Ez zitzaion oso ondo ulertzen, baina hori aurrerapen itzela zen. Handik urte batzuetara, Andrea apurka-apurka asko hobetu zen. Ondo hitz egin zezakeen baita gorputza pixka bat mugitu ere.

10 urterekin pintura lehiaketa batera aurkeztu zen. Koadroa, noski, oinarekin margotu zuen. Hurrengo astean, bere etxera deitu zuten lehiaketa irabazi zuela esateko. Horrek sekulako ilusioa egin zion eta margotzen jarraitu zuen.



14 urte zituenean hiriko alkateak gutun bat bidali zion ea bere koadroekin arte erakusketa bat egin zezakeen galdetuz eta Andrea baiezkoa eman zion. Familia guztia gonbidatu zuen erakusketara. Andreari margotzea asko gustatzen zitzaionez, sekulako poza eman zion. Erakusketara 30 koadro bidali zituen eta horietatik 20 saldu zituen. Bere familiak ez zeukanez diru asko, irabazitako dirua oso ondo etorri zitzaien Andreari tratamendu bat jartzeko. Baina Andrea etxetik joan ez nahi zuenez, mediku bat joan zitzaion etxera. Medikua 20 bat urte zituen eta Andrea beraz maitemindu zen. Andrea ez zekien Pablok neska laguna zuenik eta egun batean esan zion:

-Pablo ikusi zintudan momentutik zutaz maitemindu nintzen.

-Niretzat oso pertsona garrantzitsua zara, baina neska laguna daukat eta asko maite dut.

Andrea gorri-gorri jarri zen eta ez zion ezer gehiago esan terapia osoan, baina Pablok joan aurretik esan zion:

-Bihar arte eta ez ahaztu zu niretzat oso pertsona garrantzitsua zarela.

-Agur -ezin izan zuen ezer gehiago esan.

Ama bere logelara joan zen eta, Andrea ohean etzanda ikusi zuenean, asko izutu zen. Hurbildu egin zitzaion eta galdetu zion:

-Zer gertatzen zaizu, maitea?

-Ezer ez -eta lepoz jarri zen.

Amak bakean uztea erabaki zuen. Sukaldera jaitsi eta txokolate beroa egin

zuen, Andrearen askaririk gogokoena zelako. Txokolate katilukada bat hartu eta berriro logelara igo zen. Oraingoan Andrea margotzen ari zen, baina ez beti bezala, koadroa beltza zen guztiz. Ama bere ondoan ezeri zen eta ez zuen ezer esan.

Andreak bat-batean dena kontatu zion negarrez.

-Ez larritu, zure adineko mutil asko daude.

-Baina nik Pablo maite dut.

-Baina berak neskaguna dauka. Tira hartu txokolatea. -eta joan egin zen.

Andreak ohean pasatu zuen egun osoa. Ama oso kezkatuta zegoenez, berarekin hitz egitera joan zen:

-Gabon, zelan? zenbat koadro margotu dituzu?

-Bat ere ez.

Eta horrela egunak eta egunak pasatu zituen eta azkenean amak hauxe esan zion:

-Logela berri bat egiten badizut, margotzen hasiko zara?

-Beno, beharbada.

Hurrengo egunean goizeko zortzietan ama esnatu eta lanean hasi zen. Ordu batzuk pasatuta bere semeak esnatu ziren eta galdetu zioten:

-Zertan ari zara? -galdetu zion nagusiak.

-Andrearentzat logela bat egiten.


-Laguntza behar duzu? -galdetu zion txikiak.

-Beno, ez zait txarto etorriko. Eskerrik asko.

Hirurak jarri ziren lanean eta Andrea, ez zenez oso ondo sentitzen, jaitsi eta ahal zuen guztia egin zuen. Egun osoa pasatu zuten lanean eta gauerako logela bukatua zegoen. Andrea oso pozik jarri zen eta musuak eta besarkadak ematen hasi zen.

Afaldu ondoren, bere logelara joan eta gau guztia margotzen eman zuen. Hiru koadro margotu zituen: lehengoa, bere amarena; bigarrena, bere neba nagusiarena eta hirugarrena, bere neba txikiarena. Hurrengo goizean, neba bakoitzari berea eman zion baita amari ere. Ilusio handia egin zien.

Arratsaldean Pablo joan zen terapia egitera. Andrea ez zen arraro sentitu eta oso ondo pasatu zuen. Arratsalde horretan Pablarekin ibiltzen saiatu zen. 3 pausu eman zituen. Hori seinale ona zen.



Hurrengo eguna igandea zenez, goizean elizara joan ziren guztiak. Egun hartan Andreak bere aurrean zegoen mutilean jarri zuen begirada. Ez zuen inoiz ikusi hain mutil guapoa eta meza bukatutakoan, berarekin hitz egitera joan zen.

-Kaixo, Andrea naiz -esan zion lotsatuta.

-Kaixo, ni Alex naiz -erantzun zion.

-Hemen bizi al zara?

-Orain bai, nire amonaren etxera etorri naiz bizitzera.

-Orduan ikusiko gara, agur.

-Bai, agur.

Eta bakoitza bere aldetik joan zen. Etxera heldutakoan, bere logelara joan zen irakurtzera. Ordu erdi geroago kanpoan zaratak entzun zituen eta begiratzera joan zen. Auzokoa zen. Bere iloba etorri zen. Hura kasualitatea! Alex zen bizilagunaren iloba. Alex ohartu zenean, bisita bat egitera joan zen Andrearen etxera. Atea jo zuen eta Andrearen amak zabaldu zuen.

-Egunon andrea. Alex naiz zure auzokoaren iloba. Andrea ikustera etorri naiz, elizan ezagutu dut eta ea zelan dagoen ikustera nator.

-Egunon mutiko, pozten naiz zu ezagutzeaz. Andrea patioan dagoen logelan dago. Zatoz!!

Zelako sorpresa hartu zuen Andreak, bat-batean Alex sartu zenean logelako atetik!

-Kaixo, zelan?

-Ondo eta zu?

-Ondo baita.

Arratsalde osoan egon ziren batera. Andreak denetik kontatu zion: erakusketarena, koadroak erakutsi zizkion... eta Alexek ere kontatu zizkion bere gauzak. Lagun minak egin ziren. Beti zeuden elkarrekin. Hain egin ziren lagun onak, ze Andrea maitemindu egin zen eta arratsalde batean, bere etxean zeudenean eta inor ez zegoela aprobeztatuz, honela hitz egin zion.

-Alex lagun minak egin gara; hainbeste ze zutaz maitemindu naizela uste dut.



Alexek ez zuen ezer esan. Musu eman zion masailan eta, ondoren, ezpainenetan.

-Ni ere maitemindu egin naiz.

Musukatzen hasi ziren eta bat-batean Andrearen ama ailegatu zen etxera. Ohean eseri ziren hitz egiten eta amak ez zuen ezer nabaritu.

Gau hartan, Andreak Alexentzako koadro bat egin zuen eta hurrengo goizean eman zion. Alexi sekulako ilusioa egin zion, eta Andreari eskatu zion ea gelditu ahal zen arratsaldean terapia nola egiten zuten ikusten. Andreak baiezkua eman zion. Arratsaldean, Pablok, Alex ikusi zuenean, galdetu zuen:

-Hemen geldituko al da?

-Bai, axola ez bazaizu -erantzun zion.

-Ez, ez, lasai.

Egun hori sekulako eguna izan zen Andrearentzat. Terapian oso ondo zihoan, gainera maiteminduta zegoen. Egia esan ia ez zen gogoratzen bere elbarritasunaz.

Andrea Alexen begietan beste neskak bezalakoa zen. Beno, besteak baino hobe zen. Horregatik maitemindu zen berataz.

Urteak pasa ahala, Andrea gero eta hobeto zihoan. 21 urte zituenean, esku bat mugi zezakeen, baina bere lana margotzea zenez eta eskuz ez zuenez hain ondo egiten, oinarekin jarraitzen zuen margotzen. Alex, ordea, abokatua zen. 30 urterekin beraien lehenengo haurra izan zuten, eta sekulako suertea izan zuten, haurra ez zelako gaixotasunekin jaio. 35 urterekin bigarren haurra izan zuten. Zaharrenak Amets zuen izena, neskato polit-polita; bigarrena, berriz, Xabier zen, mutiko bihurri zamarra. Familia ezin zoriontsua ziren, Andreak gaixotasuna izan arren...



Bukaera.

Bizitza hobe

Iñaki Etxarri Ocio
Solokoetxe B.H.I., 3. maila

Tanzania. Viktoria lakua. Egunero, Memed zaharra eta Nelson arrantzan ateratzen dira beraien txalupa, sare eta kanaberekin. Gogor lan egin ohi dute udako eguzki azpian sareak bota eta biltzen. Hala ere, egun horretako goiz erdian deskantsatzeko gelditzean, bi arrain baino ez zituzten saskian.

Nelson lasai zebilen bere sagartxoak jaten. Memed, berriz, guztiz pentsakor. Nelsonek zertan zebilen pentsatzen galdetu zionean, "Europar" erantzun zion. Liluragarria omen zen Europa.

Memedek esan zion herri aberats haietan barku bakar batek beraiek eta bere seme-alabek eta hauen seme-alabek bizi osoan harrapatuko zituzten arrainak baino askoz gehiago harrapatzen zuela itsasaldi bakarrean, eta gehiena botatzen zutela. Eta kontatu zion iparraldeko herri haietan Nelsonen ortuaren zabalera baino mila bider handiagoak ziren ortuak zeudela. Nahi izan ezker, tomate karratuak edo horiak egiten zituztela eta milaka kilometrotara hazitako ganaduaren hanburgesak jaten zituztela eta etxe erraldoietan bizi zirela milaka pertsona, bakoitza bere gelatxoekin. Gelatxo horietan denetarik zeukatela eta ondoko gelatxoan bizi zenaren beharrik ez zutela eta askotan elkar ezagutu ere ez zutela egiten, eta gurasoek ez zutela umeei jolastu behar, horretarako zeukatela telebista,

ordenagailua eta beste pantaila batzuk ere. Pantaila horietatik ikasten zutela bizitzari buruzko guztia. Zoragarria omen zen Europa. Ametsen mundua. Lehen mundua.


Memed, gaztetan, Iberiar penintsulako iparraldean egon zen bizitzen bi urtez. Behin denbora hori pasata, bota egin zuten paperik ez zuelako.

-Iparraldean ez dira ondo ikusiak atzerritarrak, eta azal kolore ezberdinekoak okerrago -azaldu zion Memedek, -ondorioz, bertan jarraitzeko lan gogor eta zikinak egitera behartuta daude bestela... kanpora.

Lanera bueltatzean, Memedek Europa gora eta Europa behera jarraitu zuen; begi propioekin ikusi behar den kontu bat zela, baina bera zaharregia zela jada berriro saiatzeko eta Nelsonek, nahi izanez gero, erraz lortuko zuela hara iristea...

Eguerdian etxera bueltatu ziren siesta egitera. Nelson bere etxe ondoko palmondoaren itzaleko hamakan etzan zen pentsakor: Europa! Ikaragarria zen!

Zerbait egin behar zuen egoera harekin! Atsedenaldi hartan Nelsonek amets egin zuen: hanburgesa erraldoiak koipea dariela, sobratutako arrainez betetako urak, telebista edo beste pantaila mota baten aurrean orduak eta orduak pasatzen dituzten eta gurasoekin egoteko beharrik ez duten haurrak... Ikaragarria!!!



Iluntzean, alaba eskolatik bueltatu zenean, bere plana burutzeko laguntza eskatu zion, Nelsonek ez baitzekien idazten. Alabak gutun bat idazten lagundu zion.

Hurrengo goizean alabarekin joan zen herrira. Alaba ikastolan utzi eta komisaldegira joan zen gutuna eskuan zuela. Ikusi zuen lehenengo poliziarri eman zion esperantzaz beterik. Poliziaren erreakzioa ez zen, ordea, berak uste bezalakoa izan. Barrezka hasi zen eta ez zion sinistu serio ari zenik. Hala ere, azkenean, helbide bat eskaini zion.

Triste atera zen kalera. Ezin zuen ulertu zergatik hartu zuten bromatzat. Dena

den, saiatzen jarraitu nahi zuen eta helbidea norena zen ez bazekien ere, bertara joatea erabaki zuen.

Ez bat, ez bi. Autobus bat hartu eta ondoko herrira joan zen. Helbidea erretiratutako goi-kargu batena zen, berak jakingo omen zuen zer egin. Baina ez zekien, edo ez zuen jakin nahi, ez baitzuen ezer egin. Nelsoni begira geratu eta ezer esan gabe beste helbide bat eman zion. Helbide hau hiriburukoa zen. Gobernuako ministro baten idazkariarena.

Hark ministroarekin hitzordu bat lortu zion.

-Ziur zaude diozunaz? -galdetu zion ministroak gutuna irakurri ostean.

-Bai. -erantzun zion Nelsonek.

-Ez zara niri adar joka ibiliko, ezta?

-Ez.

-Baina, ba al dakizu zer eskatzen duzun hemen?

-Bai noski, buruz dakit:

Jaun txit agurgarria:

Jakin izan dut lehengo munduko bizimodua nolakoa den.

Kontatu didate zein txarto elikatzen dituzuen haurrak hanburgesa nazkagarriekin, nola alferrik galtzen dituzuen elikagaiak arrain gehiegi hartuz. Esan didate iparraldean ke artean bizi zaretela, jendeak ez duela auzokoaren beharrik eta umeak telebista aurrean egoten direla orduak eta orduak, gurasoekin egon beharrean. Enteratu naiz han tomate horiak edo karratuak egiten dituztela.

Arrazoi hauek guztiak eta gehiago direla medio, eta bizi hobe bat eskaintzeko asmoz, iparraldeko umetxo bat adoptatzeko eskaera formala luzatzen dut.

Nire eskaera kontuan hartuko duzuelakoan,

Nelson

Ministroa Nelsoni begira geratu zitzaion, bere pentsamenduetan murgilduta eta zer egin ez zekiela....

Bilboko baldosaren kondaira

Zuriñe López Vila
Ignacio Ellacuria B.H.I., 3. maila

Josu 9 urteko mutikoa da eta gaur bakarrik gelditu da aitonarekin etxean gurasoak taberna batera joan direlako afaltzera. 10etan Josu ohera joan da:

-Aitona, kontaidazu ipuin bat, mesedez. -eskatu dio.

-Ez, berandu da eta. -erantzun dio aitonak.

-Mesedezzz.

-Beno, ipuin motz bat kontatuko dizut eta gero lo geldituko zara.

-Ados. -esan dio Josuk pozik.

-Ba, zure aita txikia zenean kontatu nion ipuin bat da. Bilboko baldosaren kondaira du izena.

-Bilboko baldosaren kondaira?

-Bai, honela hasten da: Orain dela bi mende Bilbon Manuel izeneko errege batek agintzen zuen, oso jatorra zen baina gauza guztiak txarto ateratzen zitzaizkion, zorte txarra baitzuen: egun guztietan estropezu egin eta lurrera jausten zen, emakumeekin ez zuen zorte handirik, janaria prestatzen saiatzen zenean erre egiten zitzaion...



-Gizajoa! Aita bezalakoa zen, ez zitzaion ezer ondo ateratzen. -esan dio Josuk aitonari irribarrez.

-Je, je. Baina egun batean bere zorte txarrarekin amaitzeko zerbait egitea erabaki zuen eta Rodri magoarengana joan zen. Honek baldosa gris bat eman, bere etxearen aurrean jartzeko agindu eta kalera irtetean zapaldu egin behar zuela esan zion.

Manuelek horrela egin

zuen. Kalera irteterakoan baldosa zapaldu zuen.

-Eta zer gertatu zen? -galdetu dio Josuk urduri.

-Lasai, orain kontatuko dizut eta..., nondik nindoan? Ah, bai! Kalera irteten zen guztietan baldosa zapaltzen zuen eta hortik aurrera zorte ona izan zuen, emakume batekin ezkondu zen eta bi ume eduki zituen.

-Horrela amaitzen da ipuina? -galdetu dio Josuk pixka bat etsita.

-Ez, ez didazu bukatzen utzi. Orduan, Manuelek Bilboko auzo guztiak berak etxe aurrean zuen baldosaz betetzea erabaki zuen. Horretarako Rodri magoaren laguntza behar izan zuen, eta bien artean lehenengo 50 baldosak egin zituzten. Gero, fabrika bat ireki zuten eta, langileek lagunduta, baldosa asko eta asko egin eta kaleetan jarri zituzten. Egun horretatik aurrera Bilboko kaleak oso dotore gelditu ziren eta Bilboko herritarrak zoriontsuago bizi izan ziren.

-Zer dituzte Bilboko baldosak jendeak zapaltzean zoriontasunez betetzeko? -galdetu dio Josuk.

-Ez dakit, baina ez direla beste inongo baldosak bezalakoak, seguru.


-Oso bereziak dira.

-Bai Josu. Benoa, orain lo egitera, bihar arte.

-Bihar arte, aitona.

Eta horrela izan zen Bilboko baldosen jatorria baina gure esku dago beraien etorkizuna.

Zain ditzagun guztion artean Bilboko kaleak.



Aurkibidea

Alkatearen agurra	3
-----------------------------	---

Sariak	4
------------------	---

A Kategoria (Lehen Hezkuntza 3 - 4. mailak)

Sagua, txakurra eta katua	9
Untxia eta dordoka	12
Bilboko baldosa baten istorioa	13
Katu lapurra eta kaskabiloa	16
Ume hagin horia	17
Askatasuna gogoan	19
Bizkaia herria	22
Zazpi koloretako zalditxoak	24
Benetako gertakariak	26

B Kategoria (Lehen Hezkuntza 5 - 6. mailak)

Denboraren erlojua	31
Kolorerik gabeko tximeleta	33
Grafittiak eginez	36
Entziklopedia	38
Peio eta Arinen abentura	40

C Kategoria (Derrigorrezko Bigarren Hezkuntza 1 - 2. mailak)

Bi emakume	45
Tigreen bidaia luzea	48
Zenbateraino borrokatu behar izan dut	51
Ustekabeko gutuna	54
Ume baten istorioa	61
Beste bat familian	64

D Kategoria (Derrigorrezko Bigarren Hezkuntza 3 - 4. mailak)

Gaixorik al nago?	69
Etorkizun baten bila	71
Bilatzailea	74
Elbarritasun zentrala	78
Bizitza hobe	83
Bilboko baldosaren kondaira	86

